



ARGIA

**SILVIA
FEDERICI**

***"EMAKUMEEN BIZKAR
HAZI DA EKONOMIA
GLOBALIZATUA"***

» MULTINAZIONAL KUTSATZAILEENAK DIRA EUROPAKO BANKU ZENTRALAREN KUTTUNAK

» LUPULUA: GARAGARDOAREN ESENTZIA INPORTATU BEHAR EZ ZENEOA

» ARKITEKTURA: HOBETO IKASTEKO, IKASGELETAKO PARETAK ERAISTEN



ARGIA 2017ko egutegia

Egunero etxe, elkarte eta eskoletako hormak edukiz janzteko.

***Eskatu orain 2017ko
ARGIAren egutegia.***

Buruketak

Galdetzea libre

Atzokoak gaur

Santuak

Euskal izendegia

Eguzkia, ilargia eta mareak

Egutegia

9€

50€

Egurrezko
taula
egutegia
opari

☎ 943 371 545

www.argia.eus/denda

denda@argia.eus




PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Albisteak
- 7 Hor dena gailu
- 10 Net Hurbil: Europako Bankua eta klima aldaketa

IRITZIAK

- 17 June Fernández
- 18 Oier Araolaza
- 19 Rosa María Martín Sabarís Itxaro Borda



Eskoletako arkitektura aldatzen: hormak kentzeak mesede egiten dio hezkuntza prozesuari (ARGAZKIA: DANI BLANCO)

- 38 DENBORAREN MAKINA
- 40 BIZI BARATZEA
- 42 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA: LEIRE REGUERO
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: DANI BLANCO

SAKONEAN

- 12 | Silvia Federici: "Emakumeok azalean daramagu soldatarik gabeko langilearen identitatea" / Danele Sarriugarte Mochales
- 20 | Arkitektura pedagogikoa: Utikan hormak ikasgeletatik / Mikel Garcia Idiakez
- 25 | Lan molde berrien olatua enpresetan / Estitxu Eizagirre Kerejeta
- 30 | Ba al zenekien... garagardotarako lupulua Euskal Herrian egiten zela? / Iñaki Sanz-Azkue
- 33 | "Pentsio sistemaren krisia batik bat emakumeok ari gara nozitzen" / Eñaut Agirrebengoa Apaolaza
- 34 | "XXI. mendean Amerikan egindako lehen iraultza soziala Oaxacako izan zen" / Joanes Etxebarria
- 36 | Geu elkarte, etorkizuneko Gasteiz euskalduna irudikatzen / Miel A. Elustondo
- 44 | Mitxelko Uranga: "Sistemaren helburua ez da pentsaraztea" / Mikel Asurmendi
- 47 | Arte iruzkina: Damaris Pan / Xabier Gantzarain

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaitza Taldeko parteidea.

Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre.

Erredakzioa: Ainhoa Ortega, Axier Lopez, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Iosu Alberdi, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.

Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco. **Produktzioa:** Antza S.A.L.

Harpidetza: Iraitx Agirre. **Administrazioa:** Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde, Marijo Aiertza.

Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.

Idazkaritza: Aloña Sorraluze, Bego Zuza. **Web garapena:** Asier Iturralde.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545.

Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.

Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.

Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus. Interneten: www.argia.eus.

Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.

Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

ARGIA KIDETZA:

Kidetza harpidetzari lotuta egon beharrean, ARGIA komunikazio proiektua indartzera dago lotuta. Partikular eta kolektiboek, ahal duten eta egokitzat duten ekarpen ekonomikoak eginuz, ARGIA argitaratzen dituen kazetaritza lanak (aldizkaria, Larri, Aktualitatearen Gakoak) jasotzeko aukera izango dute. Batez beste, 12,50 € jartzen ditu hilean ARGIA Jendeak proiektua indartzeko.

Erakunde publikoen kasuan, ohiko sistemari eusten diogu. Harpidetza tarifak: ARGIA astero (150 € urtean), ARGIA hamabostean behin (80 € urtean) eta ARGIA hilean behin (43 € urtean).



PANORAMA

Desobeditzeko eskubideari ongietorria

Munduan 65 milioi pertsonak jaioterria atzean utzi behar izan du bortxaz. Horietatik 5.000 lagunek baino gehiagok bizitza galdu dute iaz Mediterraneoan, mugak parez pare ixten dizkion Europar Batasunera sartu nahian. Gobernuak eraikitako harresiari harri koxkorra kendu nahi izan diote Begoña Huartek eta Mikel Zuluagak, Ongi Etorri Errefuxiatuak taldearen babesean. Natasha, Awais, Ali, Basil, Rohin, Behrouz, Morteza eta Muaied Greziatik Euskal Herrira ekartzen saiatu ziren. Ez zuten lortu, bidean atxilotu zituzten, baina ekimenak pilatu duen elkartasun handiak berriz lehen lerrora ekarri du milaka lagunek Europako mugen aurrean bizi duten egoera bidegabea. Loiuako aireportuan egin zieten harrera beroan argi utzi zuten berriz ere egingo luketela: "Agintariek ez badituzte giza eskubideak betetzen, herritarrok desobeditzeko eskubidea praktikara eraman behar dugu zilegitasun osoz, lege injustuak desobeditu behar ditugu, giza eskubideei zor diegulako obedientzia".



ELA gaixotasunak akituta, sedazio aringarri bidez heriotza duina eskatu du Larraitx Chamorro alegiararak. Medikuek erantzun diote ezin dutela halakorik egin.



“Badakit asmo horretan laguntzeak esan nahi duela ahizpa ondoan gehiago ez edukitzea, baina orain dagoen moduan ere ez dut eduki nahi, zenbat sufritzen ari den jakinda”

Esti Chamorro, Larraitzen ahizpa (Euskadi Irratia)



“Benetako zaintza aringarriak ez dago, eutanasia onartzen ez den bitartean”

Escribano Real



“Animaliei, gizatasunagatik, injekzio hilgarria jartzen zaie. Politikari, epaile, mediku, apaiz, erlijioek... Inork ez luke norberaren gainetik erabaki behar noiz hil. Beste behin, gure sistema politiko-judizialaren hipokresia eta koldarkeria agerian”

Barakaldotik



FAIR.COOP

Fairpay txartela, Mastercard eta Visaren alternatiba sortu da

Iosu Alberdi Atxurra

@atxurraa

Sistema ekonomiko justuagoa bilatzen duen mundu mailako kooperatiba da Faircoop, sarean estatuen kontrolatik at lan egiten duena. Fairpay txartela sortu dute, komertzio fisikoetan ordaindu ahal izateko, elsalmoncontracorriente.es webguneak azaltzen duenez.

2014an sortu zenetik desorrekia ekonomiko eta sozialak murriztearen alde egiten du lan kooperatibak. Etorkizunean erabiltzaileek banku komertzial eta estatuen esku-hartzerik gabe funtzionatzea du helburu. Fairpay txartelarekin beste era bateko produkzio eta kontsumoa sustatu nahi dute sortzaileek, “jendearen beharrak kontuan izanik, baita balore kooperatiboak,

berdintasuna eta planeta zainduz”. Proba fasearen ostean, otsailaren 1etik aurrera nahi duenak izango du txartela eskuragarri.

Aurretik hainbat elementu ekonomiko sortu izan ditu kooperatibak: Faircoin moneta, Faircredit kreditu sistema, Fairsaving aurrezkiak, Fairmarket merkatua eta Fairfunding eta Fairstars finantzaketa zerbitzuak. Nazioarteko proiektu kooperatiboak babesteko laguntza sareak ere sustatu ditu.

Iraultza integratzailearen, jakintza askearen, hacker etikaren eta bizitza duinaren printzipioak bereganatzen ditu: berdinen arteko birbanaketa eta truke ekonomikoa, parte-hartze politiko irekia, antolatze era deszentralizatua, guztien aldeko produkzioa eta jakintza irekiaren banaketa dira taldearen helburuak.

blogetan!
BLOG IZARREN BILA

Eman izena!

Antolatzailea:

azkue
fundazioa

Laguntzailea:

ARGIA

SARIAK

Bernat Vidal artistaren garaikurra

200€ diru txekia

ARGIA kolaboratzeko aukera

KATEGORIAK

Kultura / Gizarte eta politika / Aisialdia / Zientzia eta teknologia

Proposatutako zeurea edo gehien atsegin duzun bloga izena emateko epea: urtarrilak 16 - otsailak 13

blogetan.eus

HELEPAKO FERIA

ZER XERKATZEN
ARI GARA
SUPREFET
JAUÑA?

Presidente
berria
euskaldunen
elkargorako

URTARRILEKO
BRADERIAN?!?

TIRA,
AGINDUKO
DUENERAKO ...



OK



Gipuzkoako erraustegia auzitegietan katramilatuta

Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Abenduaren 26an auzitegi-tako albisteen zain zeuden GuraSOS elkarteko buruak. Eskueran ikusten zuten lizitazioa etetea, izan Donostiako Administrazioarekiko auzien 2. Epaitegiaren edo izan EAeko Auzitegi Gorenaren erabakiz. Ez zen gertatu eta 27an Markel Olanok eta Jose Ignacio Asensiok pozik iragarri zuten erraustegia abian jartzeko urratsik inportanteenetako bat, kalean herritar ugari haserre oihukatzen zuten bitartean.

Baina bihurriak direnez epaitegi-tako bidezidorrak, egun gutxiren buruan juezen esku artean zegoen katramilatuta Zubietako labea. Donostiako Administrazioarekiko auzien 2. salak eman du lizitazioa eteteko ebazpena, era bitxian: lehen puntuan ez du onartzen GuraSOSek eskatutako “*medida cautelarísima inaudita parte*” delakoa (Foru Aldundiak hondakin planaz herritarrei parte hartzeko prozesua burutu arte etetea); bigarrenean Administrazioari eskatu dio suspenditzeko lizitazioa Auzitegi Nagusiak erabaki arte.

Bitxiena, hala ere, izan da justu egun horietan bertan zabaldu duela auzitegi beraren 1. salak bere erabakia balio gabe utziaz... Zubietako erraustegiaren aurreko kontratuaren itxiera. Gipuzkoako Aldundia eta GHK Bilduren eskuetan zeudenean, 2013an, erraustegia egiteko lehenbiziko kontratua desegin zuten, FCC buru zuen

enpresa taldearekin kalte-ordainak negoziatuta. Erabaki hari San Marko eta Debarrena mankomunitateek –PSEren esku-ezarritako helegitea da lau urte geroago epaileak ebatzi duena. Paradoxikoki, Denis Itxasok aurkeztutako auzia korapilo handiagoa gerta dakioke lizitazio berriari GuraSOSen auziak eta hainbat udal eta mankomunitatek aurkeztutako besteak baino.

Berehala iragarri dute EAJ eta PSEk 2013ko eten harengatik Bildu auzitara eramateko mehatxua. Ez da lehenbizikoa. Juan Calparsorok 2015ean –Denis Itxasoren eskariz– Ainhua Intxaurrandietaren kudeaketa ikertu zuen, GHKren zuzendaritzan diru publikoa oker erabili ote zuen miazteko, amaieran dosierra artxibatuz.

Hona berriro mahai gainean hondakinen kudeaketa, diru publikoen erabilera, errausketaren beharra versus alternatibak... eta 2011n Carlos Ormazabalek sinatutako swap toxikoak. Hauek epaitu ziren auzian Cuatrecasas bufeteko abokatu Joanes Labaienek iragarri zuen erraustegi bat gelditzen zutenak ezin zirela zigorrik gabe geratu, “*irse de rositas*” gaztelania kastizoan. Antzera mintzatu da Jose Ignacio Asensio orain. Antza, errausketarik gabeko alternatibari aurpegia jarri zion Ainhua Intxaurrandia auzitara eramanez EAJk, PSEk eta zerbitzu publikoen kudeaketa pribatuko lobbyak Gipuzkoako gizarteari adierazi nahiko liokete hemen alternatibarik ez dela. Ez hondakinen kudeaketan eta ez beste ezertan ere.

EKONOMIAREN TALAIAN

Sánchez Asiain ez zen inoiz ezkutatu



Juan Mari Arregi

Jose Angel Sánchez Asiain hil da. Barakaldon jaioa, gurasoak merkataria zituen eta irakasle, katedradun, eta Banco Bilbao (BB) nahiz Banco Bilbao Vizcayako (BBV) presidente izan zen. Banku modernoek aitzindari, kreditu txartela sortu zuen eta bankuen arteko fusioaren alde egin zuen. Banestorekin huts egin ondoren, BB eta BVren fusioa lortu zuen, Neguriko hainbat familia batuz. Gizaki oro bezala, argiak eta itzalak izan zituen. BBk paradisu fiskaletan funts sekretuak zituela deskubritzea itzal makurra izan zen.

Bankaria gertutik ezagutu nuen, pertsonalki harremana izan nuen berarekin *Eginen* erredaktore nenbilen. Bere nortasunaren bi alderdi positibo nabarmendu nahi nituzke. Lehenik, Sánchez Asiainek oso ondo zaindu zuen prentsarekiko harremana. Bere bankuari zegokion arazo batez informazio gatazkatsua izaten nuen aldiro –eta ez ziren gutxi izan– nire esanetara jartzen zen, bere komunikazio talde adeitsuaren bidez edo elkar bilduta. Ez zen inoiz ezkutatu. Beti erantzun zuen. Beti jarri zen telefonoan, eta hori ez zen ohikoa enpresa handien presidenteengan. Gizarte ereduaz ikuspegi ezberdina genuen eta garai batean kritika gogorrak egin nizkion, baina beti errespetatu eta estimatu ninduen.

Bigarrenik, uste dut beharrezkoa dela onartzea Espainiak gerra zibil-leko bi bandoetako finantzazioaren inguruan egin zuen ekarpena. *La financiación de la guerra civil española* liburuan hogeitaz gero ikerketa lana eta dokumentazio argitaragabea jaso zuen. Euskal Herrian garrantzitsuak izan ziren Nafarroan izandako diru bilketak (Mola jeneralak kontrolaturiko “zerga iraultzailea” kasu), baita Bizkaian gertatu ziren ondasunen konfiskazioak ere, batez ere Sota familiarenak. Agur, Jose Angel.



VELONEWS.COM

Erabaki aitzindaria Australiako proba ziklistan: azafatarik ez podiumean

AUSTRALIA. Ondoren etorriko diren txirrindulari lasterketentzat erreferente izan daitekeen erabakiaekin abiatuko da, urtarrilaren 17an, Australiako Tour Down Under proba ziklista: sariak emateko ez da gehiago azafatarik erabiliko podiumean, junior kategoriako txirrindulariak baizik. "Euren gorputzaren irudiarekin arazoak dituzten emakumeak laguntzeko programa dugu martxan eta aldi berean azafata hauek ari gara jartzen probetan, inkongruentia da guztiz -adierazi du Australia Hegoaldeko Gobernuako Kirol ministroak-. Motor lasterketetatik ere kendu ditugu, proba hauetara datozen neska eta emakumeak inspiratu nahi ditugulako pilotuak, mekanikoak edo ingeniariak izan daitezen, eta ez podiumeko azafatak".

U14, euskal presoek eskubideen alde

Ainhoa Ortega Bretos

@ob_ainhoa

Sare mugimenduak urtarrilaren 14an Bilbon antolatu duen manifestazioarekin bat egin duten 100 pertsonako atxikimendu zerrenda publiko egin dute. Mobilizazioaren atarian, bestelako ekintzak izan dira euskal presoek eskubideen alde.

Konponbidea

Sarek instituzioei eskatu die "zauriak ixten lagun gaitzakeen elkarbizitzarantz urratsak ematea eta modu honetan, gure herriko emakume eta gizonek konponbide eta bake-rantz aurrera egitea". Konfrontazioaren jarre-politikoak salatu dute.

Kalera Kalera

Hilabete baten ostean, amaiera heldu zaio "Kalera Kalera" ekimenari. Ekitaldi jendetsuarekin itxi dute Usurbilgo Kaleragunea. Preso ohiek adierazi dutenez, dinamikak gauzatzen jarraituko dute, "konponbide integral eta justu baten bila".

Arantza Zulueta

Cadizeko Puerto III kartzelako bakartze-moduluan dago Arantza Zulueta abokatua, Bilbotik 966 kilometro-ra. Hiru urte daramatza isolamendu egoeran. Pairatzen dituen baldintzak salatzeke, manifestazioa egin dute urtarrilaren 7an.

KAZETARITZA



kazetari hil zituzten 2016an munduan, lanean ari zirela. Kazetarien Nazioarteko Federazioak dio gehiago izan daitezkeela, herrialde batzuek datuak zentsuratu dituztelako.

30

hilketa izan dira Ekialde Hurbilean eta "Arabiar Munduan", 28 Asian, 24 Latinoamerikan, 8 Afrikan, 3 European.



GINARRIZKO ERRENTA UNIBERTSALERANTZ

Herritar orok herritar izateagatik gutxieneko diru-sarrera jasotzeko duen eskubidea, alegia oinarritzko errenta unibertsala, ezarri nahi dute Finlandian. Lehenengo fase esperimentala abiatu berri dute: 2.000 biztanlek jasoko du oinarritzko errenta, bi urtez.



AIRE KUTSADURA

Aire kutsadurak Europan 467.000 heriotza goiztiar eragiten ditu urtean, Europako Ingurumen Agentziaren arabera eta BBCK jaso duenez. Hiriguneetan bizi diren pertsonak dute arrisku gehien, hauen %85 PM2,5 partikula finekin kontaktuan baitaude, Osasunaren Mundu Erakundeak kaltegarritzat jotzen duen tamainan.



EUSKAL ELKARGOA

Urtarrilaren 23an egingo da Euskal Elkargo sortu berriaren lehen bilera Baionan. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako herriak batzen dituen lehen instituzioa da.

Ez zenuke asmatuko Europako Bankuak diru merkez nor saritzen duen



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Atzeraldi ekonomikoari aurre egiteko erreminten artean, Europako Banku Zentralak diru berria inprimatuta zorrak erosten ari zaizkie enpresa handiei, aurreko urteetan estatuei eta bankuei berenak arindu ostean. Hilean 60.000 milioi euro arteko erosketekin hasi zena iaztik 80.000 milioitaraino handitu da. Klimaren aldaketaren errudun nagusiak diren korporazio handiak dira dirutza hiper-merke horren onuradunak.

Teknikoki “*quantitative easing*” (QE) deitzen diote ingelesez, *hedatze kuantitatiboa* alegia, eta da banku zentralak merkaturak diru merkea injeztatzeke dauzkaten tresnetako bat. Hitz bitan esanda, zorrak erostea. Gure kasuan, Europako Banku Zentralak (EBZ) diru elektronikoko berria sortzen du estatuen bonoak edo konpainia pribatuenak erosiz ekonomia berpizteko asmoz, ustez horrela zorrak arinduta, gobernuek bezala konpainiek gastu berriak egin eta merkaturak berotuko dutela. Ekonomia txukun antzean dabilen garaietan erabiltzen ez den erreminta ezohiko hau agintariek lanean jartzen dute gainerako moneta politika estandarrek porrot egin dutenean.

2008an lehertutako krisitik ateratzeko bestelako munizio asko erre ostean, Europan Mario Draghi EBZko lehendakariak 2015eko urtarrilean ekin zion *quantitative easing* bidez zorren erosketari masiboari, estreina euro-guneko gobernu eta beste erakunde publikoei bonoak erosiz, hilerik 60.000 milioi osatu arte. Draghi helburutzat markatu zuen 2016ko iraila bitartean 1,1 bilioi eurotik gora erostea QE bidez, argudiatuz planak iraungo zuela harik eta ekonomiak erakutsi artean benetan hobetzen hasi zela. Nola jakingo den hobekuntza iritsi dela? Omen, inflazioa nabarmen handiagotutakoan.

Baina QEak apenas lortuko zuen ekonomia aski suspertzea, zeren eta 2016ko martxoan Europako Banku Zen-

tralak hilerik erosteko zorraren muga jaso egin baitzuen 80.000 milioitaraino, %33ko iguera, erosketen saskia zabalduz korporazio pribatuei, hauek ere izan zezaten diru merkea eskueran.

CEO Europako Korporazioen Behategiak jarraitu du Europako Banku Zentralak egindako erosketen arrastoa, aurkitu arte nortzuk diren onuradunak. “Aurkitu duguna –dio CEOk– benetan da kezkatzeko modukoa, behintzat zuk ere guk bezala pentsatzen baduzu diru publikoa jartzeko leku egokiak ez direla petrolio, auto fantastikoak, autopistak, xanpaina eta jokia”.

The ECB's ‘quantitative easing’ funds multinationals and climate change dossierrean CEOk erakutsi duenez, QE sistemarekin Europako Banku Zentralak kreditu oso merkeak eskaintzen dizkie lehendik Europako merkatuaren jabe eginak diren multinazionalak eta klimaren aldaketaren errudunak diren korporazioei, *quantitative easing* eufemismoz bezituz funtsean multinazionalak Europako agintariek oparitutako diru-laguntza publikoa.

Diru merkea eskuratu duten enpresen oso izen gutxi jakin dira hilabeteotan. EBZk bere erosketen onuradunen nortasun bakartzat kode batzuk ematen dituelako. Gauza bitxia banku publiko batek horrela jokatzeko, agintariek ahoa gardentasun eta gobernantzaz betetzen duten garaiotan.

Europako Korporazioen Behatokiak hartu du kodeak deszifratzeko lana, eta

hortik azaldu da EBZ funtsean ari dela laguntzen klimaren aldaketa eragiten ari diren multinazional zikin guztiak, petrolio eta gas konpainiak eta auto ekoizleak, inporta gabe zein eskandalutan sartuta daude, hala nola Shell, Repsol, Volkswagen eta BMW.

Petrolio, gasa, autoak, luxua

Irakurleak ondo egingo du CEOk bere dosierari PDFan itsatsitako zerrendan begiratu. Guregandik hurbil, Frantziako korporazio gotorren artean, EBZren mailegu txit bigunak eskuratzeko gai izan dira Orange, Veolia, Bouygues, Suez, Vivendi, EDF, Danone eta urrezko izen handi andana, baita *Merçi Patron!* filmak hain zorrotz larrutu zuen Louis Vuitton-LVMH luxuetan liderra ere. Espainiako konpainien zerrendan ageri dira IBEX 35eko izarrak: Iberdrola, Repsol, Telefonica, Gas Natural, DIA, Enagas, Ferrovial, Mapfre... EBZri bonoak *kolokatutako* konpainia espainiarren artean %53 gas eta petrolioari lotuak dira.

Europa osoan Banku Zentralak bonoak erosi dizkien konpainien saila ikusirik, CEOk nabarmentzen du batetik azpiegitura handiak ari direla sustatzen, hala nola autopista, abiadura handiko tren eta aireportu berrien eraikuntzak.

Bestetik, dio CEOk, “onuradunen zerrendari erregai fosilen kiratsa dario, petrolio konpainia handienak arreta handiz zaintzen baititu Frankfurtek [EBZren egoitzak]. EBZk gutxienez 11 aldiz erosi dizkio bonoak Shelli, 16 Eni petrolio kon-





Europako Banku Zentralak banatu argazkian, Mario Draghi prentsa aurrean korporazioen zorrak erosteko planak aurkezten. Draghi da enplegu publiko eta pribatuen ate birakarietan hezitako agintarien adibide arketipikoa. Munduko Bankuaren zuzendaritzan aritua da, Italiako Ogasunaren zuzendari eta enpresa publikoen pribatizazioen batzordeko buru, ondoren Goldman Sachs-en Europarako presidente (Karamanlis eskuindarrari lagundu zion kamuflatzen Greziaren zor itzela, greziarren amesgaiztoa), azkenean EBZren lehendakari koroatu zuten arte.

painia italiarrari, 6 aldiz Repsol, 6 aldiz Austriako OMVri, 7 aldiz Totali”.

Klimaren aldaketa erremediatzeaz hainbeste hitz egiten den garaiotan, energia zikina ustiatzen dutenak sartzien ditu Europako diru merkeak. Salbu eta haize errota ere eraikitzen dituen Siemens; EBZk lagundutakoen artean energia *alternatiboa* aipatzen duten bakarrak dira: uranio aberastua ekoizten duen URENCO eta zentral nuklearrak ustiatzen dituen Teollisuuden Voima finlandiarra. Autogintzak ere jasotzen du diru merkea. Alemaniako onuradunen zerrendan nagusi ageri dira Daimler-Mercedes eta BMW (15 bono-erosketa) eta Volkswagen (7). Horiek bezala ageri dira Renault Frantzia edo Fiat eta baita Ferrari bera ere Italian.

Eskandaluetan edo lekuko herritarrekiko borroketan harrapaturik egotea ez

da diru publiko merkearen banaketatik at geratzeko motibo. Volkswagenei zor andana erosi diote. Berdin Eesti Energia estoniarrari, AEBetan petroliorik zikinen bertako jendeen protesten artean ustiatzen duenari.

Ryanair hegaldi merkeak langileen eskubideak zanpatuz lortzeak famatu egin duena ere zerrendan dago. Klase guztietako armak ekoiztu eta saltzen dituen eta politikarien ustelkeria kasuetan nahasitako Thales bezala. Eta Suez, Veolia eta Vivendi, Frantzia eta munduan uraren pribatizazioan ari direnak. CEOk ez du aipatzen Iberdrolaren Lemoizko zentral nuklearraren eskandalua, menturaz informarearen egileak hura ezagutzeko gazteegiak zirelako.

Quantitative easing planekin beren bonoak banku publikoei saldu diz-

kieten multinazional horiek denek aurrerantzean 31 urteko epea edukiko dute baldintza merketan lortutako dirua itzultzeko. Ikusteko dago, ordea, diru punpatze erraldoiak inoiz eragingo ote duen lanpostuen ugartzerik euro-zonan. Aditu askok diote multinazionalak emanda baino etekin hobe aterako litzaiokeela horrelako dirutza bati enpresa txiki eta ertainen finantziak arinduta, baina EQ bezalako sistemak finantzaketaren lehen mailan jokatzeko egiturak dauzkaten erraldoien neurritik daude diseinatuak.

“Azkenean –dio CEOk– dirutza handiakin laguntza publikoa ematen zaie klima okerragotzen ari diren korporazioei, hobekuntza nabarmenik ekarri gabe krisiak jipoitzen dituen Europako herritar arruntei”. ■



zuri begira



ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com




Silvia Federici, ekintzaile marxista feminista

«Emakumeok azalean daramagu soldatarik gabeko langilearen identitatea»

Lepo bete zen Tabakalerako areto handi bat pasa den abenduan, Silvia Federici pentsalari feministaren hitzaldian. Biharamunean bildu ginen harekin, eta errebasoa egin bere ibilbide luze eta mamitsuari: lehenik, emakumeen etxeko lanen esangura irauli; gero, globalizazioak munduko emakumei ekarri diena gertutik aztertu; gaur egun, egitura komunalen eta elkartasunaren beharra aldarrikatu.



Danele Sarriugarte Mochales

@daneleSM

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Nolatan hasi zinen erreprodukzio-lanaren izaera politiko eta ekonomikoa aztertzen?

Mugimendu feministan nenbilen eta 1970 inguruan eztabaida handiak izan genituen, ea zeintzuk ziren emakumeek kapitalismoaren pean pairatzen zuten zapalkuntzaren arrazoi zehatzak. Gure iritziz, gizarte kapitalistan, langile guztiak zeuden zapalduta, baina argi zegoen emakumeen kasuan bazegoela zapalkuntza gehigarri bat. Alde batetik, ados geunden: erreprodukzio-lana eta etxeko lanak ziren zapalkuntza horren arrazoietakoa bat. Lan horren zer ezagarririk ote zekarren diskriminazioa: horretan ezin ginen bat etorri.

Zeintzuk ziren ikuspegi nagusiak?

Bi teoria nagusi zeuden: batetik, feminista marxista sozialistek uste zuten etxeko lanek ez zutela kapitalik sortzen,

ez zela lan produktiboa baizik eta mundu aurre-kapitalista baten aztarna, zerbitzu pertsonal bat, nolabait esan. Bestetik, feminista erradikalek uste zuten patriarkatua zela emakumeen zapalkuntzaren iturria, eta iruditzen zitzaien patriarkatua ez zela sistema ekonomikoa bat, baizik eta aroz aro iraun duen kultur sistema bat.

Ez genuen aski bi teoria horiekin. Klase kapitalista etengabe ari da jendea zukutzen, haien izerdiaren azken tanta ere lortzeko; beraz, milioika emakume beren bizitzaren puska handi bat musu-truk lanean ematen bazuten, horrek derrigor ekarri behar zion etekinik klase kapitalistari.

Beraz, bestelako ikusmolde bat aldarrikatu zenuten.

Bai. Gure ikuspegitik, etxeko lanen birtutez (janaria prestatu, arropak garbi-

Silvia Federici

1942, Parma (Italia)

Idazle, irakasle eta aktibista feminista da Silvia Federici. Italian jaio eta hazi zen, baina AEBetan bizi izan da azken 40 urteetan, eta han jardun da irakasle, New Yorkeko Hofstra unibertsitatean. Erreprodukzio-lana eta etxeko lanak izan ditu ikergai nagusi. Hainbat artikulu argitaratu ditu, eta bi liburu kaleratu: *Caliban and the Witch: Women, the Body and Primitive Accumulation* [Caliban eta sorgina: emakumeak, gorputza eta hasierako pilaketa] eta *Revolution at Point Zero: Housework, Reproduction, and Feminist Struggle* [Iraultza zero puntuan: etxeko lanak, erreprodukzioa eta borroka feminista].



tu, umeak egin eta zaindu) ekoizten ziren langileak; ez zen zerbitzu pertsonal bat, baizik eta egunez egun, belaunaldiz belaunaldi, jendearen lan egiteko gaitasuna ekoizten duen zeregin-multzoa, lan-indarra bera ez baitator berez, etengabe berritu behar da.

Halako iraultza bat izan zen. Erreproduktzio-lana ez zen, marxistek esan bezala, kapitalismotik at zegoen lan bat, baizik eta kapitalismoaren lan-antolamenduaren oinarri-oinarria, gainerako lan mota guztiak posible egin dituen jarduna. Hortik abiatuta ondorioztatu genuen klase kapitalistak lan ikusezin eta ez-ordaindu gisa ezarri behar izan zuela, osterantzean ezin izango baitzuten hainbeste ondasun pilatu.

“Soldatak etxeko lanen truke” mugimendua sortu zenuten gero.

Estrategia gisa proposatu genuen soldatak ematea etxeko lanen truke, ez iraultza edo helburu gisa. Soldatarena estrategia bat zen harremanak aldatzeko, ez bakarrik etxe barrukoak, baita etxetik kanpokoak ere, zeren, emakumeek etxetik kanpo lan egiten dugunean, azalean baitaramagu soldatarik gabeko langilearen identitatea, eta ondorioz, lan-indar merkea gara. Nagusiek badakite zer-nolako desesperazioarekin desio dugun soldata hori, badakite ohituta gaudela debalde lan egiten, ez dugula geure lana garrantzizkotzat jotzen, eta gogo onez eskertuko ditugula ematen dizkiguten papurrak.

Zure azken liburuan diozu Bigarren Mundu Gerrak izan zuela zerikusirik hausnarketa horiekin guztiekin, eta norbaitek aztertu beharko lukeela eragin hori.

Egia esan, Leopoldina Fortunati eta Mariarosa Dalla Costa feminista italiarrek idatzi zuten horri buruzko liburu bat: *Brutto Ciao* (Bella Ciao-ri kontrajarritik).

Gerra bitarteko eta osteko Italia aztertu zuten eta, haiek diotenez, gerra mugarririk izan zen, pitzatu egin zuelako emakumeek estatuarekin eta familiarekin zeukaten harremana. Bai, gerraostean emakumeek jarraitu zuten ezkontzen eta umeak ekartzen; hala ere, hautsi egin zen beste irudipen hori, faxismoaren garaian zabaldua, zeinaren arabera familia patriarkalak emakumeak babesten baitzituen. Gerrak erakutsi zuen emakumeek beraiek babestu behar zutela beren burua, eta gainera,



emakumeak konturatu ziren ez zutela nahi umeak estatuarentzat ekoizten segi, zertarako eta gero gerrara bidali eta sarraskitu zitzen.

Eta AEBetan zer-nolako eragina izan zuen?

Hango emakumeek ere izugarri eragin zuten, oso bestelako moduan, hala ere. Gerrak iraun bitartean, emakumeak armagintzan sartu ziren eta askok estreinako aldiz jaso zuten soldata bat, estreinako aldiz bizi izan zuten etxetik kanpo lan egiteko esperientzia. Gainera, emakumeen lana hauspotzeko, AEBetako gobernuak halako egitura ia utopiko batzuk sortu zituen: zentro batzuk eraiki zituzten, eta emakumeak joan zitezkeen goizean hara, umeak utzi, eta iluntzean berri batu, eta batu baita ere janaria, arropa garbia...

Gerra amaitu, gizonak frontetik itzuli eta kolpez suntsitu zuen dena gobernuak. Arkitektoak kaleratu zituzten eta, egitura horien ordean, aldiriak eraikitzen hasi ziren, emakumeak isolatzeko eta gizonak beren lantokietatik urruntzeko, ez zezaten sindikatuarekin eta bat egin. Familia nuklearra gordetzeko urrezko kaiolak eratu zituzten, azken batean.

Nola aldatu da erreproduktzio-lanari buruzko zure ikuspegia azken 40 urteotan?

Batetik, 1990eko hamarkadan Nigerian lan egin nuen hiru urtez, unibertsitateko irakasle moduan, eta hortxe egin nuen topo lehen aldiz lurraekin eta iraupeneko nekazaritzarekin. Orduantxe konturatu nintzen Afrikako emakume askorentzat soroan bertan abiatzen zela erreproduktzio-lana. Nigeriara iritsi nintzenerako, Munduko Bankuak dagoeneko martxan zeukan iraupeneko nekazaritzaren aurkako kanpaina bat, zeina indarrean baitago oraindik.

Bestetik, globalizazioaren ondorioz, egoera aldatu da. Mendebaldean, emakume mordo bat soldatapeko lanean ari da, lanpostu baxuetan, autonomoa izateko aukera handirik gabe. Nazioarteko Diru Funtzaren politikek guztiz pobretutako herrialdeetako emakumeek, berriaz, Mendebaldeko herrialdeetara egin dute alde, eta zaintzaile edo sexu langile gisa ari dira, nahiz eta asko ikasitakoak izan. Soldaten kanpainen uste genuen emakume guztiok konpartitzen genuela zerbait erreproduktzioa zela eta, aldeak alde. 80ko eta 90eko hamarkadetako egiturazko egokitzapenen ostean, ordea, askoz zailagoa da lotura hori aurkitzea.



Entzun dizugu globalizazioa ez dela prozesu tolesgabea.

Globalizazioa kontra-iraultza bat da, horren bidez erantzun zion nazioarteko klase kapitalistak 1960ko hamarkadan goia jo zuen iraultza-olde sinestezinari. Hainbat aurpegi ditu globalizazioak, baina, osoari erreparatuta, argi dago maniobra zeharo politikoa dela (ekonomia kapitalista guztia da politikoa).

Giltzarria da ea klase kapitalista gai den esplotazio maila jakin batzuk mantentzeko. Horretarako, krisialdi-garaietan egin ohi dutena egin zuten kapitalistek: jendearen iraupeneko baliabideak deuseztatu; hala, esplotazio molde bortitza onartu behar dituzu. Horregatik suntsitu zituzten ondasun komunalak, ez bakarrik lurrak eta basoak, baizik eta geuk geure ondasun komunaltzat jo izan ditugunak, egiaz sektore publikoak izan arren, adibidez, pentsioak edo doako hezkuntza.

Zeintzuk izan ziren kontra-iraultza horren lehen urratsak?

Zorraren krisiarekin abiatu zen dena, zeina, bide batez, guztiz artifizialki sortu baitzuten 70eko hamarkadaren amaieran. Sistema kolonial zaharra modu be-

rri batean ezartzeko tresna izan zen. Besteak beste, Afrikako herrialde berriki independenteei maileguak eskaini zizkieten, oso interes baxuarekin, hartara, herrialde aurreratuen mailara irits zitezen, teknologia erosiz-eta. Gero, AEBetako Erreserba Federalak interes tasak igo zituen, dolarrak gora egin zuen, eta gauetik goizera, herrialde horiek ezin zuten ordaindu. Zorreetan oinarrituta, inbertsioak kendu behar izan zituzten: hezkuntza, osasungintza, garraioa... Lehengaiak esportatzen hasi behar izan zuten, eta bestelakoak kanpoan erosten. Herrialde horietako ekonomiak behea jo zuen. Nigeria, adibidez, herrialde nahiko aberatsa izana zen, eta jendeak ez zuen beste erremediorik izan, alde egitea baino.

Nola eragin die globalizazioak emakumei?

Munduko Bankuak eta NBE Nazio Batuen Erakundeak-eta halako erretorika bat zabaldu dute, globalizazioak emakumei egin diela mesede handiena, baina gezur hutsa da.

Ezkerra motelago ibili da, baina NBE azkar asko ohartu zen mugimendu feministaren iraultza gaitasunaz, eta ha-

sieratik ikusi zuten emakumeen autonomia-grina bizia ustia zezaketela globalizazioa indartzeko: maquiletan [lantegi mota bat], zerbitzu publikoetan, emakumeak dira nagusi; gure ordenagailuak Txinako emakume gazteek egiten dituzte, hain lan-baldintza latzen pean ezen askoren borroka-moldea baita beren buruaz beste egiteko mehatxuak egitea. Emakumeen bizkarrean berrabiarazi da ekonomia globala. Beraz, ezin dugu onartu beste ideia hori, soldatapeko lanak askatu dituenik emakumeak.

Musu-truk lan egiteak ere ez ditu askatu, hala ere.

Ez, ez. Doako lana suntsitu behar da, klase kapitalistari oparitzen ari baikara musu-truk egindako lan hori guztia, eta haiek hori erabiltzen ari dira emakumeak areago pobretzeko. Etxeko lanen harira, hiru urrats garrantzitsu daude, elkarri lotuak: doako lana deuseztatzea, etxeko lanak sozialki baloratzea eta horiek antolatzeke modua iraultzea. Nola egin hori? 70eko hamarkadan soldatarena proposatu genuen. Orain, ordea, ikuspegi globalagoa daukat eta ikusi dut zein erraz manipulatzeko den dirua, beraz, bestelako gauzak ere proposatuko

nituzke. Hala ere, erreprodukzioaren gaia beste maila batera eraman behar dugu. Erreprodukzioaren ikuspegitik landu daitezke orotariko borroak, adibidez, etxebizitzaren aldekoa: gure etxeak lantegiak badira, lan-indarra han ekoizten baitugu, ez genuke alokairurik ordaindu behar lan egiten dugun tokia- ren truke. Probokazioak dira, baina nik uste dut baliagarriak direla.

Aipatu ditugun eraldaketa horien guztien argitan, zer-nolako erresistentzia proposatuko zenuke gaur egun?

70eko hamarkadan sinetsita nengoen, eta orduan baino are konbentzimendu handiagoz sinesten dut orain, lehenik, mundua eraldatzeko, mobilizazio feministak ikuspegi anti-kapitalista izan behar duela, eta bigarrenik, funtsezko- tzat jo behar duela erreprodukzioaren borroka, bi arrazoi direla medio. Ba- tetik, erreprodukzioa da emakumeak esplotatzeko oinarritzko eremua, eta gainera, eremu horretan harrapatzen gaituzte lehenbizikoz harreman kapi- talistek, eremu horretan hasten gara bizitzaren ikuspegi kapitalista xurga-

tzen. Bestetik, orain badakit ezin duzu- la inongo antolamendu edo masa mu- gimendu politiko sendorik eraiki, non eta ez duzun erreprodukzioa aldatzen. Gizartea aldatzeko ezinbestekoa da erreprodukzioa aldatzea: nola errepro- duzitzen duzun zure burua, halakoxe politika egingo duzu.

Egitura komunalak, horra azkenaldian landu duzun beste kontzeptu bat. Zer alde dago egitura publikoen eta komu- nalen artean?


Adibide bat jarriko dizut. 2005etik 2008ra bitartean Italian egon nintzen ia denbora osoa, nire ama oso gaixo ze- goela-eta. Erizain bat kontratatu genuen goizetan zain zezan: zerbitzuaren erdia guk ordaintzen genuen, eta beste erdia udalak, beraz publikoa zen hein batean. Erizainetako asko itzelak ziren, oso jato- rrak, baina amesgaizto bat zen, zeren bi egunean behin aldatzen zuten erizaina, eta ezinago urduri egoten ginen, ia egu- nero irakatsi behar baikenion pertsona berri bati nire ama nola ukitu. Ez hori bakarrik: nire ama emakume heldua da eta norbaiti zure gorputz biluzia era-

kusteko behar duzu pertsona horrekin nolabaiteko harreman eta konfiantza bat sortu. Sektore publikoa defendatu behar dugu, noski, baina sektore publi- koak kontuan hartzen badu, soil-soilik, eraginkortasunaren, etekinen eta dirua aurreztearen logika, ez digu behar du- gun hori emango.

Horregatik behar ditugu egitura ko- munalak. Espazioak behar ditugu, noski, baina, batez ere, jendearen arteko elkar- tasuna berreskuratu behar dugu, onda- sun komunala baita hori ere, eta eraba- kiak hartzeko egiturak sortu. Gustatuko litzaidake halakoak ikustea, asanblada komunalak maiztasun jakin batekin, behetik eztabaidatzen has gaitezen, adi- bidez, zer den osasuna eta zer-nolako osasungintza nahi dugun.

Bata gabe, bestea ezin.

Komuna sendoak eraikitzeko, bestelako neurriak ere behar dira. Amaia Perez Orozcok esan bezala, laneguna laburtu behar da, zeren 10 ordu egiten badituzu bulegoan, bada ez daukazu astirik ko- munitatean modu aktiboan parte har- tzeko. Dena dago elkarri lotuta. ■



Kalean da urtarrileko

aizu!

- 'Sitio distinto' dokumentala, galiziarrei buruz
- AEKren VI. Didaktika Topaketa
- Kanpai hotsa, herriaren ahotsa
- Asier Amondo, arin-arin
- 20. Korrikaren ibilbidea egunez egun

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) **29 €**

aizu.eus

Adituak



June Fernández

KAZETARIA

@marikazetari

Emakumeak ikusgai Twitter kontuak (@ikusgaitasuna) honelako txioak publikatzen ditu astero: “Gaur ere ez dago emakumerik @Boulevardetb-eko elkarrizketetan”.

Kataluniako #Onsonlesdones-en lanari jarraituz, EHUko Ikus-entzunezko eta Publizitate Saileko irakasle eta ikertzaile talde honek sare sozialak erabiltzen ditu euskal hedabideetan emakumeen parte-hartze eskasa salatzeke.

Hedabideen Azterketa Globala ikerketaren arabera, Espainiako komunikabideetan aditu gisa agertzen diren pertsonen %9 soilik dira emakumezkoak. Datu hori egonkor mantendu da azkenengo bi txostenetan: 2010ean eta 2015ean. Joera orokorra dirudi, beraz.

Kazetariei portzentaje hori aipatu diedanean, denek onartu dute kostata lortzen dutela elkarrizketa edo kolaborazio baterako prest dagoen emakumerik aurkitzea. Askok aitzakia doinuarekin esan didate: “Tira, nik ezin dut ezer egin emakumeak animatzen ez badira”.

Ahalduntze falta, duda barik, presentzia urri horren osagai garrantzitsua da. Iruzurtiaren sindromea aipatzen du Silvia Nanclaresek eldiario.es-en argitaratutako *Las niñas de la primera fila* artikuluan. Esparru publikoan parte hartzen dugunean, emakumeok maiz ez dugula merezi sentitzen dugu, alegia. Arrazoia? Patriarkatuan autoritatea maskulinitatearekin lotzen delako.

Emakume askok segurtasun falta hori aitortu didate (“Ez dut uste nire iritzia interesgarria denik”, “Ez naiz prestatuta sentitzen”...), baina beste askok hedabideak espazio arrotzak eta bortitzak direla esan didate. Ni ere, kazetari izanda, bat nator.

Azken urteotan jaso ditudan hiru gonbit laburtuko dizkizuet:

1. ETBko goizeko magazina, abortuaren inguruan apezpiku batekin eztaba datu nezan. Ni ez banintzen animatzen,

beste feministaren bat gomendatzea eskatu zidaten. Ezetz esan nuen eta ez nuen boluntariorik topatu.

2. La Sextako albistegiak, udal batek erailketa matxista baten inguruko komunikatu kaxkar bat hedatu zuelako, nire erreakzioaren bila. Ordubete barru etorriko ziren, minutu bateko deklarazio bat eman nezan. Arduragabea iruditu zitzaidan *boteprontoan* eta bi hitzetan ezagutzen ez nuen instituzio baten jokabidea epaitzea.

3. La Tuerka telebistako gizona aurkezte batek deitu ninduen, Fidel Castroren heriotzari buruzko saio batean hitz egin nezan. Ni ezagutu gabe, hauxe esan zidan: “Beitu, bihotza, ez dut mahai-inguruan parte hartu nahi duen emakumerik aurkitu eta gutxienez zu telefonoz sartzeari nahiko nuke”. Baietz esan nuen, baina txiki-txiki sentitu nintzen.

“Jabetu zaitezte, neskak!”, esan ordez, emakumeon parte-hartzea benetan sustatu nahi badugu, hedabideen dinamika patriarkalak ezbaian jarri behar ditugu. Edozein gairi buruz (TTIP, Siriako gerra, homeopatia) iritzi kategorikoak ematea exijitzen duen tertulia formatua egokia al da? Nori ematen diogu adituaren estatusa? Zer egin dezakegu kazetariok elkarrizketatua edo tertulia-kidea eroso sentitu dadin? Zer egiten dugu emakume batek gure hedabidean agertzeagatik komentario edo eraso sexistak jasaten dituenean?

Eta gizonak lekua uzteko prest al zaudete? Hedabideetan maiz parte hartzen duzenok, noizbait gonbit bati uko egin eta emakumezko kide bat gomendatu al duzue? Clásicas y Modernas kultur elkarteak *Emakume barik, ez* manifestuan gizonari hauxe eskatu die: emakumeak baztertzen dituzten ekimenetan parte-hartzeari uko egin

Imajina ezazue *Boulevard*-eko tertulia-kideek bide horri jarraituko baliote. Gehiegi eskatzea ote? ■

Gizonak lekua uzteko prest al zaudete? Hedabideetan maiz parte hartzen duzenok, noizbait gonbit bati uko egin eta emakumezko kide bat gomendatu al duzue? Clásicas y Modernas kultur elkarteak *Emakume barik, ez* manifestuan gizonari hauxe eskatu die: emakumeak baztertzen dituzten ekimenetan parte-hartzeari uko egin

Itxurakeria dantzan

Telebistan, sarean, oholtzan eta plazan, itxurakerian erorita ageri gara dantzariak. Beldurra diot telebista pizteari, gure lotsak agerian jartzeko gaitasuna baitu ispilu makur horrek. Alferrik da ostrukarena egitea, berehala dut uasapa agintari: “Jarri telebista! Ikusi zelako dantzak!”. Eta obeditzen makal xamarra naizelakoan, ikusiz beste barik bihotza hilko didan dantzaren bideoa dator kanal beretik. “Ezin gintezke engaina, xumetasun hau gu gara” kantatu zigun Makagorriak *Bidador* pastoralean. Baina, Joxemiel Bidador dantzariaren xumetasun arrastorik sumatzen al da dantzarion jardunean?

Kokotsa ondo altxatuta eta bularra zeharo puztuta ageri gara jendaurrean. Gorputzaren kontzientzia egoaren arrandia bihurtuta, mugimenduaren zehaztasuna harropuzkeriaz hanpatuta. Besoak dantzarako altxatzean, torea-tzaileak montera lurrera botatzean darabilen lotsagabekeria erakusten dugu dantzariok. Oinekin lurrean marrazten idazten dituenaren transzendentzia; alkandoran kabitua ezinda, emozioak edertasunetik kontatzen ariko bagina bezala dantzatzen.

Aitzurlari bat dantzatzen ikusi zuen Juan Inazio Iztuetak. *Billanzikoa* dan-



Oier Araolaza

DANTZARIA

@oaraolaza

Kokotsa ondo altxatuta
eta bularra zeharo puztuta
ageri gara jendaurrean.
Gorputzaren kontzientzia
egoaren arrandia bihurtuta,
mugimenduaren
zehaztasuna harropuzkeriaz
hanpatuta


tzatu zuen eskolatu gabeko nekazariak. Bere dantzarako abilezia eta jakintza erakusgarri, dantza beraren hamasei aldaera dantzatu zituen. Bularra bihotza hauspotzeko hanpatuko zuela pentsatu nahi dut, ez zituela birrikak indioilarrarena egiteko puztuko. Aitzurrean egiten

zuen moduan irudikatzen dut dantzan Urnietako baserritarra, ostikoz indartsu, apainduraz soil, keinuetan doi.

Dantzakera soila ez da soilik baserritarren bertutea izan. Hiriburuetako jauntxoek dantza-maisuek zorrotz zigortzen zuten estilo hanpatua. Itxurakeriak dantzariaren trebetasuna iluntzen duela idatzi zuen Juan Esquivel Navarro dantza-maisu sevillarrak. Gorputza “artifiziorik gabe, laxo, kalean eramaten den modu berean” dantzatu behar zela zioen, “itxurakeriak eta harrokeriak ongi egindako guztia okertzen baitu”.

Txertoa, hantura zultzeko ziztada, Juan Antonio Urbeltz Navarrok banatzen du gurean: “Dantza ezazue pilotan jotzen den moduan”. Euskal dantza-aren estetika lezioa sei hitzetan. Dantza-ri puztuon oinak lurrera jaisteko, harriz betetzen digu motxila dantza-maisuak. Dantzan pilotan egiten den moduan egiteak eskatzen du egiaz dantzatzea, simulatu gabe, itxurakeriarik gabe, plantak egin gabe. Pilotari indarrez, abiaduraz eta zehaztasunez eman behar zaio, mugimendua edertzeko keinuak baztertuz, autokonplazentzia erakustaldiak saihestuz.

Dantzan ari garen itxurak egiteari utzi eta dantzan egitea da kontua. ■



euskal musika kosmikoak

JOSU LARRINAGA ARZA

Liburuaren hausnarketa nagusiari biraka:
Noraino aldatu du euskal musika popularrak euskal gizartea azken 60 urteotan?

"Euskal identitate berriaren etnogenesia (kontrakulturala)"

"Euskal musikaren zabalkundea (folka, rocka eta plaza)"

"Tradiziotik elektrizitatara"

"Martxa eta borroka ezkondu zirenekoa"

"Punk edo(ta) leninista-militarista izatearen kontraesanak"

"Eta non dago folka? Trikitilariak, bertsolariak, beleak eta bizardunak"

"Hedonismo borrokariaren kiribil (malenkoniatsua?)"

"Gurasoei harrotu, mundua aldatu, Euskal Herria birsortu... eta gero hau!"



Adingabeak ala transexualak



Rosa M. Martín Sabarís
EHU-KO IRAKASLEA
IKUS-ENTZUNEZKO
GAIETAN ADITUA

Ez gara inoiz jite bakarrekoak. Nor zara zu? Zer zara zu? Emakumea ala gizona? Ala ez ur eta ez ardo? Goizean matematikako irakasle hori, arratsaldean ingelesa ikasten jarraitzen duzu? Eroskin erosi eta Wallapopen saltzen duen horietarikoa zara? Heldu gabeko mutilzaharra? Ume heldua? Gazteleraz bizi den euskalduna? Beti zara bat? Beti berbera? Zenbat izaeratik migratu zara? Zenbat errealitatetara? Zenbat aldiz aldarrikatu duzu zuretzat itzultzeko eskubidea? Ur geldia zara edo ur-jausiko ura?

Normatibitatek gabeko jendarterik balego... Baina ez dago. Normatibitate guztiak dira zekenak eta berekoiak. Heteronormatibitateak dikotomia inposatu zigun txikitan: neska zintzoa eta apala ala mutil ausarta eta harroa. Gero onartu zen emakume-gizon zintzoak eta ausartak ere bazirela. Ez besterik. Gainontzekoa ikusezin, ezinezko.

Edozein normatibitate at daudenak ikusezinduak izan direlako, aldarrikatu nahi ditut hemen. Hitza eta irudia izateko eskubidea dute eurek, dut nik, dugu guztiok. Nortasunak forma ezberdinak, lausoak, iragankorrak, kontraesankorrak hartzen dituelako. Nortasuna ez delako inposatzen, ezta saltzen edo erosten ere.

Transexuala. Izena duena da. Jon ala Jone. Garai batean elizako pontean izena jartzen zen bezalaxe, gaur telebistak ipintzen dio izena eta izana jaio berri den helduren bati: Nora, Izaro,

Ares... Euren izenean mintzatzen dira, aske eta askatuta.

Nahiane izen ederra da. Adingabe baten izena.

Adingabeen eskubideak ez daude gurasoen borondatearen menpe, ez eta komunikabideek audientzia igotzeko estrategien zerbitzuan, are gutxiago komunikazio-marketingaren esanetara.

Erreza da hitz-jario handiko adingabe batek transexuala izan nahi duela esaten badu, ikus-entzule kopurua igotzea. Berrogei urteko transexual batek haurtzaroan isilik jasan zituenak entzuten ditugunean, irtenbidea ezin da izan haurra telebistako platoon jesartzea.

Adingabe transexualen guraso batzuen hitzak entzutean, hotzikara sentitzen dut: gonak eta printzesen jantziak, jostailuak, eta ilearen luzera aipatzen dituzte umearen identitate-frustrazioa azaltzeko. Hotzikara, heteronormatibitatearen hamaikagarren ondorio gaiztoa delako.

Baina egia da genero-disforia –genero/sexual-rengatiko sufrimenduak– jasan ezina denean, zerbait egin beharra dagoela. Egia da identitate sexuala ez dela patologizatu behar, baina seguru nago ospitale publikoetako genero-unitateek telebistan entzun ditudan guraso batzuek baino ikuspegi zabalagoa dutela, eta ez dela apetak emandako erabakirik hartzen. Umeei ipuinak kontatzen jarraituko dugunean, argitu ez dagoela zoriontasuna bermatuko dien aldaketarik. Adingabe baten izena eta izana jokoan. ■

Deboila



Itxaro Borda
IDAZLEA

Luhusoko atxiloketek gauza bat erakusten dute: ETaren akabantza iragarriak saihestu kalteak jasanarazten dizkio kazetariak aipatzen duten gizarte zibilari –hemen garrantzi handiagoa lukeen gizarte militar bat bailitzan!–. Iparraldeko bost VIP-ek dute berrikitan Parisera joan-etorri poliziala egin, ez nornahik alabaina, gu guztion ondoko erakunde klandestinoaren armagabetze prozesuan lagundu nahi zutelako soilik.

Eta euskal mundua, gizon bakar, bildu da beste behin Baionako edo Garaziko karriketan destinoaren garrantza salatze eta bat-bederak bere gain hartuko zuela, bakearen izenean, desar-

mearen ardura zatia aldarrikatzeko. Deboilaren minean, nehork ez zuen ETak euskaldungoari inposatu biktimismo sistematiko hori zalantzan jarri: urte berri on hargatik!

Amets bat daukat, aurten ETak plazaratuko duela bere ekina arras bukatua dela dioen agiria, borroka horrek ez duela ezertarako balio izan airtortuko digula eta aurpegiak agerian, euskaldun arruntak, abertzaleak izanagatik, inplikatu gabe, armak entregatuko dizkiola berak hautatzen duen solaskideari, izan frantses, espainol edo euskal gobernua.

Barkamendu eskatzea halatan ez liteke hain beharrezkoa. ■

ARKITEKTURA PEDAGOGIKOA

UTIKAN HORMAK IKASGELETATIK

Ikasgela itxien ordeaz paretarik gabeko espazio irekiak bagenu? Ikasmahai deserosoen ordeaz, aulki mugikorak eta sofak? Giro hermetikoaren partez, kanpoko argia? Helburu hezitzaileak bultzatuta, gero eta ikastetxe gehiago ari dira arkitektonikoki eraldatzen. Maria Acaso irakasleak garbi du: ospitaleen antz gutxiago eta kafetegien antz handiagoa behar du eskolak.



Mikel Garcia Idiakez

@mikelgi

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Sartu eta berehala, benetako zuhaitzak ikusi ditugu ikastetxe barruan, eta ume bat adar gorenean. Ez al da eroriko? Gure kezka. Orain arte ez dutela ez-beharrik izan, haur bakoitzak neurtzen dituela bere ahalmen eta arriskuak eta goraino iritsi ezin daitekeenak ez duela goraino egingo, Izaskun Aranbarri irakasleak erantzun diguna. 0-6 urte arteko 150 ume eta hamar bat irakasle hartzen dituen Uribarri eraikinean gaude (Arizmendi ikastola, Arrasate). Bi solairu ditu eta espazioka dago antolatuta, baina espazio hauek ez dira gune isolatuak, eremu irekiak baizik, paretarik gabeak, ludikoak eta koloretsuak. Txoko ugari ikusi ditugu: eskulanak egiteko, material ezberdinekin esperimentatzeko, proiektuak aritzeko, jolasteko... eta lasai egoteko txokoa ere aurkitu dugu espazio guztietan, gortina gardenez babestua; barruan koltxonetak, kuxinak, liburuak, musika lasaia, proiektorea... “Haserre daudenean ere, hara joan ohi dira baretzera”, kontatu digu Aranbarrik.

Egiturek eta altzariak zailtasun maila ezberdinak dituzte, ikaslea bera joango baita probatzen, salto egiteko, igotzeko edo jaisteko duen abildadearen arabera. Areago, 0-2 urte artean daudenean arkitektonikoki egiten dute trantsizioa, no-


labait: aldapatxoak banantzen ditu espazio lasaia eta espazio konplexuagoa, eta aldapa igotzeko gai direnean, prest daude bigarren gunera joateko. Lasaitasuna bilatzen duen haurrak behearazko bidea ere egin dezake. Labirintoak eta batik bat zuloak atzeman daitezke egitura asko eta askotan, espazio intimoak eskaintzeko asmoz: talde txikitik edo bakarka, zuloetan sartu eta euren kontura aritzea gustuko dute haurrek. Gurasoek ere badute beren eremua, seme-alabak uzten eta jasotzen dituztenetarako, trantsizio modura. Beirate handiek eguzkiaren argia eta berotasuna sartzen uzten dute eta komun mistoak ere beiratez inguratuta daude, denon bistara. “Hemen ez dugu ezer ezkutatzeko”.

Mistoak eta beiratez inguratuak, hala-koxeak dira baita ere komunak Arizmendi ikastolako Arimazubi eraikinean. Beheko solairuan, Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren maila daude. 88 ikasle eta lau irakasle finko dira eta solairu guztia da bat: beirate handiek bananduta, baina pasillo bakar batek elkartuta; irakasleen gela ere integratuta dago espazio berean. Eta anfiteatroa dute, harmailekin, talde osoa batzeko. Hurrengo erronka, akustika: sabaia jaitsi eta material bereziak erabiliz zarata zurrupatzea dute helburu.

Guztira 12 eraikin eta 3.000 bat ikasle ditu Arizmendik, Haur Hezkuntzatik Lanbide Heziketara. Duela zortzi urte hasi zituzten aldaketa arkitektonikoak eta gaur egun Haur Hezkuntzako sei eraikinak eta Lehen Hezkuntzako lehenengo eta bigarren mailak birmoldatu dituzte, konfiantzaren pedagogiarekin koherentea den espazioa antolatzeko saiakeraren barruan. Lehen Hezkuntza osoaren eta Batxilergoko espazioaren moldaketan murgilduta daude une honetan; adin horietarako zer nolako espazioak nahi dituzten ari dira eztabaidatzen eta udan egingo dituzte obrak zenbait eraikinetan. Bigarren Hezkuntzako espazioak eraldatzea etorriko da gero. Txikitik abiatutako pedagogiari jarraikortasuna eman nahi diote gora-goko mailetan ere, izan ere zer zentzu du umeekin proposamen berritzaileak lantzea, gero bat-batean ohiko eskema zurrunetara itzularaziko bada ikaslea?

Egitura zurrunetatik espazio gardenetara

“Ikasgelak ez daude irakasteko pentsatuak, kontrolatzeko baizik”; Stephen Heppell hezitzailearen hitzak dira. Arizmendiko pedagogia zuzendari Amaia Antero ez da hain gordina, baina garbi du:



Paretarik gabeko eremu irekiak, ludikoak eta koloretsuak aurkitu ditugu Arizmendi ikastolako Urbarri eraikinean (Arrasate): txokoka antolatutako espazioak, lasai egoteko gunea, zailtasun maila ezberdineko azpiegiturak, intimitaterako zuloak nonahi...



Argazkiotan, Arizmendi ikastola. Goiko irudian, Lehen Hezkuntzako gunea. Behean, ezker-eskuin: 0-2 urtekoen eremuan dagoen aldapatxoa igotzen duen umea prest dago espazio berri eta konplexuagora jauzi egiteko; testuinguru eta txoko ugari eskaintzen zaizkio ikasleari; komunak, mistoak eta beiratez inguratuak: "Ez dugu ezer ezkutatzeko".

espazioaren kontzeptua ezin da isolatu planteamendu pedagogikotik, "eta eskolako espazioek, salbuespenak salbuespen, gizarte eredu bati erantzun diote, industrializazio garaiko mentalitateari: diziiplina eta autoritatea. Horrek eskatzen du irakaslea erdigunean eta ikasleak ilaratan jartzea, irakasleari entzutea eta obeditzea helburu, norabide bakarreko irakaskuntza baten barruan. Egungo gure planteamenduan, irakasleak ikasleei informazioa emateko momentuak ez dira desagertzen, baina kontua da zein proportziotan egiten den hori, eta nola: taldeka aritu daitezke ikasleak, talde batean eurak autonomo, eta beste talde batean irakaslea lagun dutela. Norabide askotan eraikitzen baita ikaskuntza prozesua, ez irakaslearengandik bakarrik". Hori guztia errazten eta ahalbidetzen du espazioa birmoldatzeak. "Gainera, orain arteko espazioak hotzak ziren, beste goxotasun bat bilatzen ari gara".

Baita lortu ere: espazio diafanoak, zabalak dira Arizmendiko aldaketa arkitetnikoen emaitza: "Gelaren logika desagertzen da eta jada ez daude gelak, espazioak baizik; maila guztietan errepikatzen den eskema da -dio Anterok-. Horrek ikasgela bat = irakasle bat dinamika puskatu du, irakasle bat baino gehiago daude eremu berean, espazioetan bilatu dugun gardentasuna lotuta dagoelako hurbiltasunarekin, besteak gertu senti-

» **AMAIA ANTERO, IRAKASLEA:**
"Ez daude gela itxiak, espazio irekiak baizik, ikasgela bat = irakasle bat dinamika puskatuz. Bilatu dugun gardentasuna lotuta dago denak gertu sentitzearekin eta elkarlanarekin"

» "Espazioa irekitzeak ez du esan nahi dena libre denik. Kontua da espazio horretan zer egin, eta irakasleek ikas-prozesua gidatzen dute"

» "Denek aho batez diote gatazka kopurua jaitsi egin dela, ikasleak lasaiago dabilzala espazio zabal hauetan"

tzearekin, uneoro begi-bistan. Zailtasun bat sortzen den momentuan (konpetentziala, emozionala, fisikoa...), irakasleak presente daude eta garrantzitsua da, gure artean konfiantza harreman bat garatzeko". Irakasleak elkarrekin lan egitera ere bultzatzen ditu antolaketa honek, "eta horrek dakar euren artean gehiago adostea, haurrenganako begiradak anitzagoak izatea, egoeraren ikuspegi bat baino gehiago bateratzea...". Halaber, ikasleak taldeka eta txokoka aritzeko aukera ematen du espazio berriak, "egitura kooperatiboan jardutea delako gure oinarri nagusietako bat".

Jakin-mina eta motibazioa sustatzeko giroa funtsezkoa dela jakitun, "estimulatuko dituzten egiturak bilatu ditugu, baina aldi berean baita lasaitasuna transmititzen duten espazioak ere. Beirateak inportanteak dira, argi naturalak bizi-pozean eragiten duelako; arkitektoek beraiek hala berretsi digute, ikaskuntza aktibatzeke balio du kanpoko argiak". Gainera, "ikasgela itxi batean karbono dioxido maila igotzen doa goizak aurrera egin ahala eta zaila da ikasleak kontzentratzea 2.000 partikulatik aurrera, eta 4.000ra ere iritsi daiteke", irakurri diogu Stephen Heppelli. Horri aurre egiteko modua ere badira gune irekiak.

Anterok azpimarraturiko beste ezaugarri bat: malgutasuna. Aukera anitzeko eta egitura malguko espazioak dituzte helbu-



TXINTXIRRI

Elorrioko Txintxirri ikastolan, 0-2 urteko haurrek bioeraikina dute jolas eta ikas-gune: egurrezko eraikina da eta isolamendu naturala du. Beirate handiak aurrealdeko berdegunearekin konektatzen du barruko espazioa, kanpoaldera irekitzen den ikastetxea izatea ere bilatzen dutelako.

ru, proiektu/txoko/talde batetik bestera mugitzeko aproposak, eta altzarigileekin ere ari dira hartu-emanen, besteak beste gurpildun aulki eta mahaia eskuratzeko, ergonomikoki egokiak.

Malgutasuna = kaosa?

Jolas libre, malgutasuna mugimenduetan, askatasuna uzten duten espazio zabalak... ez ote dira kaosaren aliatu? "Espazioa irekitzeko ez du esan nahi dena libre denik -zehaztu du Anterok-. Kontua da espazio horretan zer egiten den, eta kaosa egongo da ikas-prozesua gidatzen ez bada, baina gela itxian gauza bera gertatu daiteke. Gure joera da, ikasgaika bainoago, proiektu lan egitea, proiektu beraren bueltan arlo eta diziplina ezberdinak jorratuz, eta prozesu hori gidatu egiten dute irakasleek. Une batzuetan irakaslearen azalpenak beharko dituzte ikasleek, eta beste batzuetan autonomoki arituko dira".

Ondorioak harremanetan, psikomotritzitatean, autonomian...

Elkarrekintzan eta sozializazioan nabaritu dituzte emaitzak: "Haur, guraso eta irakasleek aho batez berresten dute gaztaka kopurua jaitsi egin dela, ikasleak lasaigo dabiltzala espazio zabal hauek". Gainera, eskola txikietan bezala, adin ezberdinetakoak aiseago nahasten dira, txikiagoek zaharragoengandik ikas-

ten dute, eta alderantziz. Testuinguru anitza eskaintzeaz gain, txoko eta proposamen didaktiko ugari aukeran dituzte ikasleek, euren interesak kontuan hartuta, eta horrek ere laguntzen du askatasuna eta autogestioa garatzen. Erronka fisikoen araberako egiturek berriz, autonomia bakarrik ez, psikomotritzitatea ere bizkortzen dute. Artikulu hasieran aipatu dugun aldapa adibide garbia da, Anteroren hitzetan: "Aldapa hori igotzea lortzen duenean, espazio berri bat, beste mundu bat, beste harreman sare bat irekitzen zaio umeari, eta hori guztia oso lotuta dago alderdi psikomotorearekin".

Ondorengo omen da galdera klabea: bueltatuko zinateke lehengo espazio antolaketara? "Eta inork, ez irakasleek, ez gurasoek, ez ikasleek, ez dute bueltatu nahi".

Batxilergoko gelak eraldatzea apustu

Sarri balirudike esperimentu eta berrikuntza pedagogikoak haurrentzat balio dutela, baina adinean aurrera egin ahala serio jartzea dagokigula eta eredu akademiko zurrinari heltzea dela alternatiba bakarra. Beharbada horregatik, Amaia Anterok onartu digu erronka eta poz handia litzatekeela Batxilergoan egin nahi duten espazioen aldaketak emaitza arrakastatsua izatea. Oraingoz, birpentsatze fasean daude eta udan etorriko dira obrak. "Goxotasuna bilatu-

ko dugu, sofak jartzea eztabaidatu da adibidez, eta oro har, Haur eta Lehen Hezkuntzan daramagun filosofia mantentzea da asmoa: espazio zabalak, bizpahiru irakasle batera talde handi batekin lanean, dena begi-bistan...". Gu, ezinbestean, Heppellekin gogoratu gara berriro: "Ikasmahaiak asmo txarrez diseinatu dituztela dirudi, irakurtzeko gauza deserosoagorik ez dago!".

Elorrioko Txintxirri ikastolan, bioeraikina

Elorrioko Txintxirri ikastolan, 0-2 urteko haurrek bioeraikina dute jolas eta ikas-gune: egurrezko eraikina da (urtean behin olioztatzen dute, ez dute berniza erabiltzen), isolamendu naturala du (kare eta lastozkoa), hormetatik dator beroa eta ez lurretik (umeak katuka dabiltzala aintzat hartuz), sabai-zuloek eta kristalek dute lehentasuna eguzkiaren argia ahalik eta gehien aprobetxatzeko, leihoak diseinatuta daude umeen txoko izateko (lurraren mailan dauden borobil erdiak adibidez, haurrek jolasteko)... Darabilatzaten materialak ere, ahal den neurrian, naturalak direla kontatu digu Zuriñe Zorroza ikastolako zuzendariak: artilezko panpinak dituzte (guraso eta irakasleek eginak), ikasleekin batera egindako plastilina eta tenperak, metalezko eta egurrezko jostailu apenas landuak... eta koloire neutroz dago margotuta ikastetxea,



harea kolorez: “Horrek lasaitasun handia ematen du; ez dugu kanpo-estimuluan sinesten, haurra da bere garapen prozesuaren jabe”. 39 ume eta lau profesional hartzen ditu eraikinak.

Pedagogia aktiboa dute oinarri Txintxirrin, eta berau bideratzeko testuinguru ekologikoa bermatu nahi izan dute: “Testuinguru ekologikoa diogunean, gularik eta paretarik gabeko espazio irekiez ari gara, gauzak eskura izateaz, mugimendu librean aritzeko umeak aske sentitzeaz, adin ezberdinen arteko elkarrekintzaz, espazio horretan familia integratzeaz... Eta hori guztia kontuan izanik diseinatu da eraikina”, azaldu digu Zorrozuak.

Beirate handiak aurrealdean duten berdegunearekin konektatzen du barruko espazioa, kanpoaldera irekitzen den ikastetxea izatea ere bilatzen dutelako. Hain juxtu, jolastokiak berak duen garrantzia aitortzen eta eskoletako kanpo-eremua eraldatzen ari dira gero eta ikastetxe gehiagotan, futbolari protagonismoa murriztuz eta jarduera mistoeekin aberastuz, denentzako izango diren lekuak bermatuz, natura txertatuz...

» **Birmoldaketa**
arkitektoniko hutsa
ez da nahikoa, atzean
lanketa hezitzailearik ez
badago. “Bota buruko
paretak lehenengo,
eta gero botako dituzu
kanpokoak”

Gasteizko alde zaharrean, espazio berrietara egokitzen

Gasteizko alde zaharra txukuntzeko Europako laguntzak iritsi zirenean, alde zaharrean bertan dagoen Ramon Bajo ikastetxe publikoko gurasoek presioa egin zuten eskola ere kontuan har zezaten, eraikina zahartuta zegoelako. Haur eta Lehen Hezkuntzako 200 ikasle baino gehiago eta 20 irakasle inguru hartzen ditu ikastetxeak, bi solairutan. Laguntzak lortu zituzten, eta behin arkitektonikoki egitura moldatzen hasita, bestelako eredu bat aurrera ateratzeko

Gasteizko Ramon Bajo eskola publikoan 2013an abiatu zuten berrantolaketa: zirkulazio librerako espazio zabalak, elkarguneak, txoko anitzak...

aprobatu zuten, konfiantzaren pedagogian oinarrituta. Dagoeneko ezagunak egingo zaizkizu ikastetxe berriaren ezaugarriak: zirkulazio librerako espazio zabalak, denak elkartzeko guneak, txoko anitzak... 2013an abiatu zuten berrantolaketa, eta irakasleak prestatzen jarri dituzte indarrak, espazioak ahalik eta modurik egokienean erabiltzeko. Ramon Bajoko zuzendari Iñaki Ibargutxik dio goiz dela emaitzak baloratzeko, baina dagoeneko ondorio baikorrak antzeman dituztela: giroan, autonomia mailan, guztien arteko harremanetan...

Oharra ere egin digute elkarrizketatuek. Tresna bat gehiago da espazioaren antolaketa, planteamendu pedagogikoaren osagarri, birmoldaketa arkitektoniko hutsa ez baita nahikoa, atzean lanketa hezitzailearik ez badago. “Aukera baldin badaukazu, aldatu espazioak, baina aurretik aldatu barruko espazioak; bota buruko paretak lehenengo, eta gero botako dituzu kanpokoak”, Amaia Anteroren gomendioa. ■



Josi Roig eta Amaia Oregi:

"ENPRESETAN LAN MOLDE BERRIEN OLATUA ETORRI DA ETA ASKO DAGO EGITEKO"

Enpresetan berrikuntzak egiteko prozesuak diseinatzeko eta gidatzeko dituzte Manahmanak. "Errazleak" esaten zaio rol horri. Bogan dagoen eremu horretan aitzindariak dira eta era guztietako enpresak dituzte bezero: industriako handietatik zerbitzuetoako txikietara. Izen batzuk aipatzearren, Emun, Fagor-Ederlan, .eus, Danone, Mercedes...

Puntako enpresen lan antolaketez ikasteko jo dugu eurengana. Josi Roig Fabregas eta Amaia Oregi Elizburuk erantzun dituzte gure galderak, bere lanak asebetetzen dituenaren pasioz.



Estitxu Eizagirre Kerejeta
@eeizagirre

Zer bilatzen du enpresa batek Manahmanara jotzen duenean?

Izan daiteke proiektu estrategiko bat egin nahi duela, edo produktu berri bat sortu, edo adibidez, lan sistema berri bat behar duela: enpresa horrek departamentuak lan egiten duela eta geroz eta gehiago departamentuen arteko proiektuak funtzionatzeko delako. Aldaketa hori nola egin jakin behar da, jendea asko saturatu gabe, eta joera egoten delako beti jende bera aukeratzeko gauza berak egiteko. Horizontaltasun handiagoa eta departamentuen arteko elkarrekintza handiagoa ekarriko duten sistemak sortu behar dira. Sistema horietan ez da sailbururik egoten, bestelako rol batzuk agertzen dira. Rol horietatik zein behar diren identifikatu behar da eta rol horiek sortu.

Aipatu duzu enpresetan departamentuen arteko elkarrekintza handiagoa behar dela. Zergatik?

Lan egiteko modua aldatzen doa, merkatuak gauza berriak eskatzen dituelako. Lehen lanpostu bakoitza oso argi ze-

goen, bazenekien uneoro zer egin behar zenuen. Orain merkatuak behar berriak eskatzen ditu. Gero eta sormen handiagoa behar da eta berrikuntza gehiago. Proiektu, produktu eta zerbitzu berriak sortu behar dira. Behar horiei erantzuteko, lantalde bat sortu behar da erakundearen ikuspegi ezberdinak bilduko dituen: proiektu berri horri ekiteko beharrezkoak izango direlako produktzioari langileak, sail komertzialeko langileak eta administrazioari langileak. Langile bakoitzak erakundearen ikuspegi osoa izan behar du, bakoitzak bere lekutik ekarpenak egiteko. Zenbat eta ikuspegi anitzagoak dituen lantalde horrek, orduan eta aberatsagoa izango da emaitza. Izan ere, pentsatzeko modu ezberdina dugu, informazio ezberdinekin abiatzen garelako.

ABEetan bogan dago langileak sekzioz aldatzea, enpresa barruan. Noski, erotzen dira bolada horretan, baina beste lankideen ikuspegia hartzen dute. Euskal Herrian ez gara arrisku horiek hartu zaleak eta ez dugu horrelako ezer egiten, baina pentsatu genezake filosofia hori nola ekarri gura. Adibidez, egun oso bat pasa dezake langile batek beste sekzio bakoitzarekin eta horrela bere lana ikusiko luke.

Enpresak ez al dira gai beren eguneroko lana eraldatzeko prozesuak beraiek lideratzeko?

Enpresetan ezagutza dago. Baina ez gaude ohituak edo zaila egiten zaigu jende askok norabide berean sortzea edo helburu beraren bila jotzea. Denbora oso garestia denez, eraldaketa egiteko modurik azkarrena bilatzen da. Eta modu azkar horrek atzetik prozesuaren diseinu bat behar du, bestela jendea galdu egiten da. Askotan errentagarriago da kanpoko zerbitzu bat kontratatzea, enpresari denbora asko aurreztuko diolako. Beste batzuetan ez da horrela, enpresan jende prestatua egon daiteke eta kanpoko esku-hartzerik ez behar izan. Kasu bakoitzean errentagarritasun kalkulua egin behar da.

Zein dira horrelako sormen prozesu kolektibo baterako gakoak?

Egon behar dutenek egon behar dute. Inor ez faltan eta inor ez soberan. Helburuaren arabera da hori eta jakin behar dugu kide bakoitza zergatik eta zertarako dagoen. Norbaitek ez badaki zergatik eta zertarako biltzen garen, ez da beharrezkoa lantalde horretan. Garrantzitsua da denek informazio bera izatea abiapuntuan. Eta batez ere, de-

nek argi izatea zein den helburua edo sortu behar duguna eta zergatik dagoen behar hori. Oinarrizko marko bat sortu behar da, denek ezagutzen dutena.

Ondoren, garrantzitsua da eraikuntza prozesua gidatzen joatea. Asko entzun behar da, denek parte hartu dezatela eragin behar da, nahiz eta denek ez neurri berean egin, bakoitzak bere onena eman dezala, eta tresna ezberdinak eskaini behar dira bakoitzak bere onena atera dezan. Dena ahalik denbora gutxienean eta umorearekin.

Errazleonek lanean garrantzitsuena, aurretiazko diseinua da. Prozesuaren %80a da diseinua, eta hori Manahmanako bi kide aritzen gara.

Umorez eta zorientasunez egin behar dela prozesua diozue. Nola?

Horizontaltasuna da gakoetako bat. Prozesu parte-hartzaileetan ez du batek besteak baino gehiago balio. Langile bakoitzaren motxilak hustu behar ditugu eta ikusi zein diren partekatzen ditugun puntuak eta hortik aurrerako bidea egin.

Hainbeste berdintasun eta horizontaltasun... goi karguak zer moduz portatzen dira zuen tailerretan?

Ongi, eurek egon nahi dutelako prozesu horietan. Egoteko baldintza, era horretara egotea da, ez goiko mailan kokatuta. Ikusten badugu eurak egoteak baldintzatzen duela dinamika, gonbidatzen ditugu ateratzera. Bestela ere, prozesuetan badira uneak zuzendaritzarekin biltzen garena.

Bakoitzaren beldurrek nola eragiten dute prozesu hauetan?

Beti egongo dira aldaketekiko erresistentziak. Beti. Berdin dio, jendea oso kontzientziatua badago ere, edo merkatua zerbait eskatzen ari bazaigu ere. Badira bere horretan oso eroso dauden pertsonak. Zorionez, badira, baita ere, erakundea mugiarazteko joera duten pertsonak. Beste batzuek atzean geratzen dira, eta ikusten dutenean berrikuntza horrek funtzionatzen duela, orduan igotzen dira gurdira. Garrantzitsuena ez da hasieratik jende guztia ados egotea, baizik, amaieran emaitzak positiboak direla ikustea eta orduan denak gurdira igotzea. Egia da erakundearen kultura aldatzeko gurditik tiraka ari direnentzat nekagarria dela bidea. Dena ematen dute eta energia asko jartzen



dute aldaketa horretan. Baina norbaitek egin behar du, eta ausart horiek dira egiten dutenak.

Hau dena nola uztartzen da prekarietatearekin?

Ez da posible. Gutxieneko baldintzak eta ongizaterako oinarriak behar dira. Langile batek injustizia sentitzen badu bere nominan, ez du inolako ekarpenik egingo, bere kontratuak exijitzen dionaz arago. Ez du zentzurik, etikoki ere. Jendeak erronka baten aurrean bere onena emateko sano egon behar du, pozik, ongi.

Batzuetan ez da lortzen horrelako sormen prozesuetan landu diren emaitzak praktikara eramatea. Zergatik?

Mila faktore egon daitezke. Ohikoenak, agian prozesua ez zutela sortu behar zutenek sortu, edo sortu zutenek ere ez zutela sinesten sortu zuten horretan.

Zuen ikuspegitik, zein dira puntako enpresak?

Aldatzeko prest daudenak. Sumatzen dituzten aldaketetara lasterren egokitzen direnak. Enpresak ongi egon behar du ekonomikoki, eta ongi esatean ez diogu irabazi handiak lortu behar di-

tuenik, ekonomikoki sano egon behar duela baizik. Eta bertako langileek ere ongi egon behar dute. Produktu on bat izan dezala edo zerbitzu on bat eman, eta bezeroak asebeteta eduki.

Ez da beharrezkoa azken teknologia izatea, ez hamaika doktoratu. Enpresaren neurriak ere ez du axola. Merkatuan ongi kokatuta egotea da gakoa. Hori da biziraupena ekarriko diona.

Pertsona batzuek gauza baterako balio dutela eta besteek bestetarako entzuten da maiz. Zuek gaitasunak nola ulertzen dituzue?

Zerikusi handiagoa dute jarrerek gaitasunek baino. Pertsona denak dira baliotsuak. Nik laguntzeko edo egoteko jarrera badaukat, gainerako lankideek nigan joko dute, eta aldiz, aurpegi txarrak jartzeko joera badut edo jarrera itxia, jendeak ez du nigan joko. Horregatik bukatzen du jendeak beti berberengana jotzen.

Ikusarazi egin behar da jarrera bakoitza, sarri ez baititugu ditugun jarrerak ikusten. Ikusi arazi egiten baditugu jarrerak, jendea zer pentsa ematen diote jarrera bakoitzaren ondorioek eta aldaketak ematen dira. Espazioak eman



» “Debatea eta elkarrizketa bereizten ditugu, eta elkarrizketaren bila joan behar da eta horretarako arau batzuk jarraitu behar dira. Tailerretan zaintzen dugu jende guztiak gauzak esan ahal izan ditzala, ez elkarri hitza oztopatzea, denek elkar errespetatzea... Berdintasuna bizi behar da. Dinamika denak daude pentsatuak partaide denak ongi sentitu daitezen, ez dadin inor ezeroso egon”



Bi sozio fundatzaile dira Manahmanan (ezkerretik eskuinera): Maialen Oregi eta Aitor Guisasola; Josi Roig eta Andrea Goitia geroztik batu dira.

behar zaizkio jendeari, pentsatzeko, hitz egiteko, partekatzeke...

Hamar urte daramazue honetan eta aitzindariak zarete. Ofizio berria da.

Errazleonek lana oraindik oso berria da. Merkaturak bogan jartzen ari da baina ez da ongi ezagutzen eta kontzeptuak nahasten dira. Gaur egun, Mondragon Unibertsitatean gradu bat dago baina horren aurretik Tecnaliak eskaintzen zuen formazioa eta gu lehen promozioa izan ginen ikastaro horretan. *Team Academy* metodologia finlandiarra zerabilen Tecnaliak, lantalde berritzaileak sortzeko. Bederatzi kide izan ginen lehen urtean, eta denen artean sortu genuen Manahmana. Ikasturte horren ondoren, lau lagun gelditu ginen enpresarekin.

Metodologiak ezagutzen genituen eta bere horretan aplikatzen genituen enpresetan baina ohartzen ginen ez zutela erabat ongi funtzionatzen. Orduan eza-gutu genuen Sunni Brown: Bilbon ikastaro bat eman zuen prozesuaren diseinuari buruz. Eta jabetu ginen hori zela guk falta genuena, prozesuak guk geuk sortzea eta hor txertatzea metodologia anitzak. Ondoren, pentsamendu bisuala deskubritu genuen.

Egun, Nazioarteko Errazleen Elkarteko (IAF ingelesezko siglak) kide gara. Bere bidez, ezagutza gaurkotzen dugu etengabe. Bai Euskal Herrian eta bai Espainiako Estatuan, IAF-eko kide bakarrak gara.

Zer ematen du bada pentsamendu bisualak?

Euskarri bisualei esker, lantaldeko kide denek norabide berean sortzen dute. Lengoia bisuala da denok errazen ulertzen duguna. Galdetzen badugu “pentsatu sagar bat”, kide bakoitzak era batekoa irudikatuko du. Baina “hau da gure sagarra” marrazten badugu, denok ari gara gauza bera ikusten. Gauza bera gertatzen da proiektuekin. Bakoitzak gauza ezberdin bat badugu buruan, oso zaila da elkarrekin zerbait sortzea. Gainera, sortzen goazen hori irudi batean sintetizatzen eta gauzatzen bada, bilduta gertatzen da kontzeptua, ez dugu txosten oso bat behar gauza bera azaltzeko.

Hamar urte hauetan zer joera sumatu dituzue enpresetan?

Aldaketa handia eman da. Gu hasi gine-nean erakunde publikoekin egiten genuen lan, horiek zirelako gai honetan interesa zutenak. Pixkanaka sartu ginen enpresen

munduan, eta egun ia erabat enpresetan ari gara. Funtzionatzeko modu berrien, lan molde berrien olatua etorri da eta asko dago egiteko. Gauzak beste modu batean egin behar dira, eta enpresa asko ari da bere nortasunaren bila “kultura hau dauka, badakit nora joan nahi dudana, baina nola egingo dut bidea?”.

Parte-hartzea ere asko hazi da enpresetan. Eta berrikuntza ulertzeko modua ere aldatu da: lehen liburuetakoa ideia distiratsuak ziren berrikuntza, eta egun gehiago lotzen da gauzak beste modu batera egitearekin, pixkanaka esperimentatzearekin. Berrikuntzan ere sinestea da gakoa, benetan sinesten duenak bilatuko du egiteko modua.

Gauza batzuek gaizki ere egin dira: esaterako, parte-hartzea manipulatzeko erabili da eta orain buelta dator. Horrekin erre zen jendearekin egiten dugu topo eta gure mezua izaten da: “hori pasa zen eta denok ikasi dugu zerbait, ezta?”. Orain lan egiten dugun moduagatik, ez dago manipulaziorik. Dena da gardena, informazio guztia dago denen eskura, argi dago zein den helburua eta bakoitzak zergatik hartzen duen parte. Inork ez du aurretik emaitza ezagutzen, prozesua da denek ezagutzen dutena. ■

Indartu DEZAGUN, INDARTZEN GAITUENA

Zer INDARTZEN DUGU ARGIAKOAK EGITEAN?

KAZETARITZA INDEPENDENTEA

ARGIAren atzean ez dago ez banku, ez alderdi, ez multinazionalik. Langileak gara jabeak eta komunitatea bermea.

INFORMAZIOA BURUJABETZA

Informaziorik gabe ez dago demokraziarik.

ARGIA JENDEA

ARGIAren indarra jenda da, komunitatea. Jendeak eusten dio komunikazio proiektuari.

HERRI MUGIMENDUAK

Gizartea eraldatzeko lanean dihardutenen ekimen eta eztabaiden berri ematen dugu.

EUSKARA

Euskararen normalizazioan eragile bezala, mundua euskaraz ulertzen laguntzen dugu.

BERDINTASUN ERREALA

Gizartearen erdiari hedabideok sortzen dugun iruditegian eta gaien hierarkian dagokion lekua ematen ahalegintzen gara.

BIZITZA BALIOTSUA

Bizitza da gure balioen zentroa, ez dirua. Gure balioen arabera bizi gara ahalik eta gehien eta etengabe.

EUSKAL HERRIA

Euskal Herri osoko herritarrak lotzen ditugu etengabe hizkuntza, gai eta erreferente berberen inguruan lotzea, herrigintza bezala ulertzen dugu.

EKONOMIA SOZIALA

ARGIAk urtero, milioi 1 euro inguru ondasun sortzen du euskal gizartean eta aberastasunaren banaketa praktikara eramaten dugu.

HARPIDEDUNENTZAKO OHARRA

Harpidetzei dagokionean ez da ezer aldatzen, kontzeptua bakarrik. Ekarpen ekonomikoa aldatzea eskatzen e



ARGIA

**egin
ARGIAkoa!**

EMAN ETA JASO
NAHI DUZUN NEURRIAN

eta eragin
txikitik

- Zenbateko ekarpen ekonomikoa eta ze maiztasunekin EMAN nahi duzun erabaki.
- ARGIAren produktuen zerrendan, egoki deritzozuna JASOTZEA aukeratu.
- Kidetza eta ordainketa datuak bete.



z den bitartean, orain arteko harreman bera mantenduko da.

**egin
ARGIAkoa!**

EMAN ZURE INDARRA

KIDEAREN DATUAK	
☐ NORBANAKOA	☐ KOLEKTIBOA ☐ ERAKUNDEA
Izen-abizenak	
Helbidea	
Herria	
P.K.	
Herrialdea	
Tel.	
e-maila	
Jaioteguna	
NAN / IFK	
☐ IGORPENA	
☐ TRANSFERENTZIA	
☐ KREDITU TXARTELA	
Laboral Kutxan: ES16 3035 0036 14 0360048647	
Nafarroako Rural Kutxan: ES50 3008 0148 61 3003756727	
Hendaiaako Credite Mutuel-en: FR76 1027 8022 81 0002011830 143	

ZENBAT EMAN NAHI DUT ARGIAREN ALDE?	NONDIK JARRAITUKO DUT ARGIA?
€ — — — —	☐ ALDIZKARIA JASO
Zenbateko maiztasunaz?	☐ Astero
☐ Urtean behin	☐ Hamabostero
☐ Sei hilean behin	☐ Hilero
☐ Hilabetero	☐ PDF-an
*ARGIA Jendearen batzbesteko ekarpena: 12,5€ hilean edo 150€ urtean	☐ LARRUN JASO
	☐ URTEKARIA JASO
	☐ BULETINA JASO e-mailez
	☐ argia.eus
	☐ SARE SOZIALAK



ARGIA

www.argia.eus/eginargiakoa

ARGIA. Harremanetarako. Zirkuitu ibilbidea 2. Industrialdea 15. 20160 Lasarte-Oria. Gipuzkoa. Euskal Herria. 943 37 15 45 harpide@argia.eus

Ba al zenekien...

Garagardotarako lupulua Euskal Herrian egiten zela?

Lupulua ez da edozein landare. Lupulua landare berezia da eta baditu ondo gorderiko sekretu txikiak. Izan ere, lupuluaren lore emean, barnean, ezkutatuta dago garagardo onena egiteko sekretua: lupulina.

II. Mundu Gerraren ostean, Euskal Herriko baratzeetan lupuluak inguratutako zortzi metroko makila luzeak azaldu zirenean inork gutxi zekien zer zen lupulua. Inork gutxi zer zen lupulina. Egun, garagardo artisaua indarra hartzen ari den honetan, gutxi dira lupulua ezagutzen ez dutenak, baina asko Euskal Herrian lupulua landatu zela ez dakitenak.



Iñaki Sanz-Azkue

Testigu batek eman zidan lehendabiziko abisua: “Lupuluaren hau, kontu misteriotsua huen”. Gero konturatuko nintzen zerbaitetan behintzat bazuela arrazoa. Euren baratzetan lupulu landaketak jarri zituzten testigu gehienak hilik dira eta euren seme-alaben testigantzak baino ezin ditugu jaso. Artxiboetan ezer gutxi eta bertako liburuetan ere aipamenak bakanak dira. Argazkiez, zer esanik ez. Arrastoei tiraka aurkitu ditugu hainbat artikulua zahar, egin ditugu hoge bat elkarrizketa eta artxiboetako dokumentuen kontsulta. Euskal Herriko lupuluaren historiari arrastoa ateratzeko moduan behintzat bagara.

Zortzi metroko arbak baratzeetan

“Arba luzeak izaten hituen baratzeetan. Eta hauetatik gora igotzen huen lupulua, babarruna bezala!”. Lupulu landaketak ezagutu zituzten guztiek nabarmentzen dute gauza bera. Guda ostean lupuluaren etorrerak baratze askotako paisaia aldatu zuen. Lurrean sartutako dozenaka makila lodi eta luze haiek arreata deitzen zuten. Eta oraindik ere herritar askok dute irudi hura goioan.

Lupulu landaketetan 6-8 metroko arba, zurkaitz edo makila luzeak jartzen ziren zutik, errenkan, “bata bestetik metro eta erdi, bi metroko distantziara” lekua eta baserritarraren arabera. Sasi-akaziaz edo gaztainez eginak izaten ziren. Geroago etorriko ziren arba hauek ordezkatuko zituzten alanbreak, lanerako hobeak.

Arbak lurrean sartu aurretik, ordea, izaten zen lana, zulo sakonak egin eta lupulu landare berria sartzeko. Lupulua pujatik ateratzen zen. Ez zen ereiten. Horrela, aterako zen landarea emea zela ziurtatuta zegoen. Garagardoa egiteko, landareak emea behar zuen eta. Hauxe izaten zen prozesua: landaretik ateratako puja berriak moztzen ziren. Ondoren, udaberri hasieran, landatu eta hauen aldamenen sartzeko ziren arbak edo makilak. Landarea hazten zihoan heinean arbara gidatu eta enborrean gora igotzen zen lupulua: “Uda hasierarako 6-8 metroko altuera hartzen zian”.

Abuztu erditik aurrera hasten zen lorea botatzen lupulua, iraila erdira arte. Orduan beste une preziatu bat zetorren: lupulu-lorea jasotzeko garaia.



Emakumeak eta umeak lupulua biltzen

Europa erdialdean, lupuluaren tradizioa oso errotuta dagoen lekuetan, lorea jasotzea festa handia izaten zen. Jende andana elkartzen zen lupulu landaketetan, jasotzeari berari festa giroa emanaz. Euskal Herrian, ordea, jasotze prozesua oso bestelakoa izaten zen. Landaketa gehienak tamaina txikikoak izan ziren, gomendatu ere hala egiten baitzuten. Honela, familia bera izaten zen lorea jasotzeaz arduratzen zena. “Etxekoak egoten gintuan jasotzen. Lan gogorra izaten huen. Eguzkiak bete-betean jotzen zian eta euriarekin ezin jaso”.

Hernanin, ordea, bazen lupulua jasotzera herriko jendea eramaten zuenik ere. Antonino Pagolarena izan zen Gipuzkoako lehendabiziko lupulu landaketa, Urumeako erriberan, Portu auzoa eta Karabel auzoaren artean eta 1945erako jada 100 landare zituen sartuak. Urtero-urtero Astigarragako Ergobi auzotik eta Hernanitik familiak joaten ziren lupulua jasotzera Pagolaren terrenora. “Familia osoa joaten gintuan. Etxean diru gutxi eta zer erremedio! Sos batzuk



BETTMANN / CORBIS

irabazten genizkian han eta!". Emakumeak eta umeak izaten ziren batez ere jasotzen zutenak. "Bi-hiru aste pasatzen genizkian jasotzen, egunero egunero".

Lupulu-lorea, landaretik lehortzeko plantara

Lorea zegokion garaian bildu behar zen, ez lehenago, ez geroago. Horrek ziurtatuko zuen lupulina, garagardoa egiteko erabiltzen dena, bere punturik onenean egotea. Hau dela eta, baserritar askori erakutsi egin behar izan zitzaion zein zen lorea biltzeko momentu egokia, urte osoko uzta galtzeko arriskua baitzegoen bestela.

Jaso baino egun bat lehenago, lurretik metro erdira moztzen zen landarea. Hurrengo egunean, arba lurretik aterata landare eta guzti eta etzanda jartzen zen, altuera txikira, eserita ahal bazen edo lurrean bestela loreak banan-banan mozteko, batzuetan guraizeekin, askotan azazkalekin. "Guk eskailerekin jasotzen genian" aipatu digu beste testigu zituzten, hortik zakueta pasatzeko.

Antonino Pagolaren landaketara biltzera joaten zirenek pisuaren arabera

kobratzen zuten "Egunean bertan. Hantxe zakua pisatu eta ordaintzen zitean". "Ondoren zakua zaldi-karroan jarri eta Ergobira eramaten zitean lupulua". Gai-nontzeko baserrietan ahal zuten moduan moldatzen ziren zakua Ergobira eramateko: "Anaia bizikleta zaharra hartu eta atzean zakua jarrita joaten huen!". Bestalde, Mutrikutik esaterako, Astigarra urruti zuten eta trenez garraiatzen zituzten zakua.

Zakua Ergobin utzi eta zegokiena kobratu ostean landaketaren jabeak bere lana bukatua zuen. Hortik aurrera, Estatua edo kasu honetan Fomento del Lúpulo delakoa zen hurrengo pausua, pausu delikatuaz arduratuko zena: Jasotako lorea lehortu egin behar zen.

Lorea lehortzea

Espainiako Estatuan lupulu landaketak hasi zirenean baserritarrak izaten ziren lehortzeaz arduratzen zirenak. Lehortzea, orde, kontu handiz egin beharreko prozesua zen. Gutxiegi edo gehiegi lehortzea, biak ala biak ziren txarrak eta aurreneko urteetako esperientzia eskasa ikusita, Estatuak lorea jaso berri

LUPULUA

Lupulua (*Humulus lupulus*), zerbeza-loria (Gipuzkoa), zerbeza-landaria (Gipuzkoa), otsaihera (Nafarroa) edo bierbelarra (Iparralde), *Cannabaceae* familiako landare belarkara da. Lur azpian errizoma izan ohi du eta bertatik, urtero, lupulu landare berriak jaiotzen dira. Igokaria da, aihena, zurtoinean dituen ile txiki eta sendoak erabiliz beste landareetan edo zurtoinetan gora egiten du, sei-zortzi metrora altuera iritsiz.

Espezie dioikoa izaki, lore arrak eta emeak landare bereiztueta izan ohi ditu. Lore emeak (ernaldu gabeak) garagardoa egiteko erabili izan dira XIV. mendetik, izan ere, euren barruan duten lupulina izeneko erretxina da garagardoi usaina eta zaporea ematen diona. Hau dela eta, lupulu landaketetan soilik ale emeak hazten dira.

Egun dozenaka lupulu barietate dauden arren, Euskal Herrian bada bertako lupulua ere, modu basatian erreka ertz eta hezetasun handiko gun epeletan hazten dena.

zegoela biltzea erabaki zuen, azken pausua, lehortzea eta fabriketara bidaltzea euren esku hartuz.

Lehortzeko, noski, hezetasun gutxiko lekua behar zuen, eguzki askorik gabea, baina haize pixka bat sartuko zena. Baserrietako ganbarak leku egokiak ziren, baina Estatuak bere esku hartu zuenean, lehortze-plantak sortu zituen, sistema askoz egokiagoekin: lehortzeko labeak eta egurrezko kaxoiak zituzten. Ergobi auzoan zegoen, esaterako, lupulu-lorea lehortzeko planta. Ergobiko lehortze-plantako labea koke ikatzarekin zebilen: "Gure aitak eraman zian gurdikada bat koke Amaratik Ergobira, lupulua lehortzeko plantara".

Behin lehortuta, lupulua prest zegoen fabriketara eramateko eta garagardoa egiteko erabiltzeko.

Lupulu landaketak Hego Euskal Herrian

Antonino Pagolak 1945ean jarri zuen lupulu landaketan Espainiako Gobernu-ko Dirección General de Agricultura izan zen sustatzailea. Bertan *Golding* edo *Dorada de Kent* izeneko barietatea sartu

zuten, 1914an Leopoldo Hernández Robredo izeneko ingeniari agronomoak Ingalaterratik Galiziara eraman zuena, hain zuzen ere. Harrituta gelditu zen Galizian erreka ertzetan modu basatian hazten zen landarea, Ingalaterran garagardoa egiteko landatzen zutela ikusita. Honela, A Coruñan lupulu landaketak sortzeko frogak martxan jarri zituen segituan. Modu basatian bazegoen, zergatik ez zen ba bertan landatzerik izango?

Bitartean, gero eta garagardo fabrika gehiago zegoen Espainiako Estatuan eta denek kanpotik ekartzen zuten lupulua. Alemaniatic eta Austriatic ia kasu guztietan. Galizian lupulua landatzeko egin zituzten frogak, ordea, emaitza bikainak eman zituzten eta ikusi zen, gainera, kanpoko baina prezio hobeagoan ekoiztu zitekeela. Saiakera bat edo beste egin arren, gauzak ez ziren asko aldatu eta fabrikek kanpotik erosten jarraitu zuten.

1930eko hamarkadaren hasieran landaketa proba berriak egin zituzten Galiziatik kanpo, hiru lekutan: Granadan, Bizkaian eta Nafarroan, bertako aldundiak bultzatuta.

Esperientziaren emaitza onak ikusita, 1949an lupulu landaketak zabaltzen hasi ziren: 1950erako Hego Euskal Herrian 20.000 lupulu landare zeuden, 225 nekazariren ardurapean. Bizkaian, Araba iparraldean eta Nafarroako Goizueta herrian eta Baztan, Arakil eta Iruñeko bailaretan ere ezarri ziren. Gipuzkoako hogeitaherritarak ere iritsi zen: Hondarribia, Oiartzun, Astigarraga, Hernani, Usurbil, Orrio, Gabiria, Mutilloa, Azpeitia, Mutriku, Oñati...

Baserritarrek aholkularitza behar izaten zuten eta Vicente Ruigómez Velasco izan zen Sociedad Anónima Españolaren izenean aholkulari lanak egin zituen. Eta itxura guztien arabera, herrialde bakoitzean arduradun bat egon zen Ruigómezen azpitik. Gipuzkoan, aurreneko landaketa jarri zuen Antonino Pagola izan zen. Honek koordinatzen zituen ekarri beharreko landareak, jaso beharreko zakuak eta bakoitzari ordaindu beharrekoak. "Gure aita Antoninorekin moldatzen huen, hark esaten zigukien baita jasotzeko garaia noiz huen ere".

Espainiako landaketa eremuekin alderatuz, ordea, Hego Euskal Herriko kopuruak txikiak izan ziren. Esaterako, Gipuzkoan 1945etik 1958ra 10 hekta-



Maria Pagola eta Antonino Pagola lupulu-loreak jasotzen Gipuzkoako lehen landaketan, Hernaniko erriberan.

ITURRIA: REVISTA AGRICULTURA.

ARGAZKIA: VICENTE RUIGÓMEZ.

GERREK UTZITAKO HERENTZIA

1944an, II. Mundu Gerraren ondorioz, Alemaniatic ez zen lupulurik iristen eta Espainiako Nekazaritza Ministeritzak dekretua atera zuen 1945eko maiatzaren 23an, landaketei buruzko legeak ezarri. Garagardo fabrikek Sociedad Anónima Española de Fomento del Lúpulo sortu zuten eta Espainiako lupulu landaketen kudeaketaz arduratu ziren, beti ere Sección de Fomentoko begiradapean.

Garagardo fabriken artean, Hego Euskal Herriko fabrika esanguratsuenak zeuden: Juan y Teodoro Kutz (Donostia), La Cerveza del Norte (Bilbo), La Salve (Bilbo), La Vizcaína (Bilbo), Cervezas Knorr (Gasteiz). Hauen itzalean, pixkanaka lupulu landaketak Hego Euskal Herrian sartu ziren, eta garagardo fabrikak, ahal zuten heinean, bertan landaturiko lupulua erabiltzen hasi ziren garagardoa ekoizteko.

reatan mantendu ziren landaketak, baina segituan murrizten hasi ziren, eta 1968rako desagertu egin ziren. Nafarroan, 1930ean lehenbiziko frogak egin bazituzten ere, 1956an hasi ziren lupulu landaketak sortzen. 3 hektarea izan ziren aurrea eta segituan 2 hektareatara pasa zen eremuaren azalera, 1966an desagertu zen. A Coruñan, aldiz, 1957an Gipuzkoan baino 12 aldiz lupulu hektarea gehiago zegoen eta Leonen 17 aldiz gehiago.

Iragana ala etorkizuna?

Lupulu landaketek hogeitaherritarak eskas iraun zuten Hego Euskal Herriko baratzetan. Hauetako askok, gainera, bi-hiru urte baino ez zuten iraun. Hasieran diru-laguntzak jaso zituen sektorea indarrean hasi zen, baina pixkanaka desagertzeko joera egin zuen eta garagardo fabrikak, berriro ere, lorea kanpotik ekartzen hasi ziren.

Egun, Euskal Herrian ekoizturiko garagardo artisauak indarra hartu duen honetan, badira bertako lupuluaren aldeko apustua egin dutenak. Agian, Euskal Herriko lupulu landaketak ahaztutako historia baino, etorkizuneko historia izango dira. ■



Maria Gorospe Erdozia [pentsionista]



TESTUA ETA ARGAZKIA:

Eñaut Agirrebengoa Apaolaza

@eagirrebeng

“Pentsio sistemaren krisia batik bat emakumeok ari gara nozitzen”

Maria Gorospe Erdozia naiz, 69 urteko iruindarra, eta beste pentsionista asko bezala, gorriak ari naiz ikusten. Hilean 600 euro inguruko pentsioa jasotzen dut, eta horrekin, gaur egun, ezin naiteke bizi. Hartara, lan egitera behartuta nago.



Pisua jada ordainduta daukat, baina duela zortzi urte hipoteka bat eskatu behar izan nuen, gainontzeko bizilagunekin batera, eraikinaren erreforma ordaindu ahal izateko. Oraindik mailegua ordaintzen dihardut: 400 euro hilean. Bakarrik bizi naiz, eta dudan pentsioarekin, ia ez zait beste ezertarako dirurik gelditzen. Gainontzekoa etxeko gastuetarako erabiltzen dut; argia, ura eta gasa ordaintzeko, alegia.

Janaria erosi ahal izateko, lan egiten dut. Garbiketa lanetan aritzen naiz astean hiru egunez. Nire adinarekin, hori da aurkitu daitekeen lan bakarra. Penagarria da bizitza osoa beharrean eman, eta orain halako egoera batean egotea. Bere txarrean, ondo ordaintzen didate: hileko 300 euro, astean sei orduz lan egitearen truke. Hori bai, lanaldiak akituta finitzen ditut. Nire adinarekin, indarrak ez daude soberan. Oraindik ahalmena badut lanean aritzeko. Baina artrosi handia daukat, eta nork daki hemendik urte batzuetara nola egongo naizen. Horrez gain, azpimarratzekoa da pentsioa kendu diezadaketela beste diru-iturri bat dudala ikusiz gero. Adi-

bidez, obra egiteagatik subentzio bat eman zidaten eta Gizarte Segurantzakoak kontu eske etorri zitzaizkidan.

Dudan diruarekin, oinarri-oinarrizko premiak baino ezin ditzaket ase. Ezohiko gastuekin, komeriak izaten ditut. Batzuetan, ezin izaten diet aurre egin. Esaterako, eskuin belarritik ez dut ezer ere entzuten, baina aparailua ezin dezaket erosi, sekulako dirutza balio baitu. Momentuz ezkerreko belarritik ondo entzuten dut, baina noizbait, menturaz, erabat gor geldituko naiz.

Inguruko pertsona asko ez bezala, ezin naiteke joan zinemara, kafe bat hartzera, adiskideekin afaltzera... Bizitza soziala izatea zailagoa da. Hainbat elkartetan nago sartuta, eta eskerrak. Pertsona aktiboa naiz, eta ez dut etxean sartuta gelditu nahi. Besteak beste, Sasoia elkartean eta Mayores frente a la crisis kolektiboan nabil. Kontzientzia soziala daukat, eta uste dut beharrezkoa dela pentsiodun gisa ditugun eskubi-deengatik borrokatzea.

Adindu asko egoera prekarioan gauden, baina Espainiako Gobernuak eziku-

siarena egiten du, ez du gure ongizatean pentsatzen. Hilean 1.000 euro baino gutxiago jasotzen ditugu Hego Euskal Herriko pentsiodunen %70 inguruk. Eta horietatik, gehienok 650 eurora iristen ez diren pentsioak ditugu.

Batik bat emakumeok ari gara nozitzen pentsio sistemaren krisia. Askok se nitartekoen zaintzaz eta etxeko lanez arduratu izan dira, ez dute kotizatu, eta behin alargun geldituta, pentsioa %60ra jaisten zaie. Gastuek, ordea, bere hartan dira. Injustizia handia da.

Etorkizuna oso beltz dakusat. Aurreikuspenen arabera, pentsioen poltsa hutsik egon daiteke urte baten buruan. Pentsioak ez lirakeke poltsa horren baitan egon behar. Badira beste irtenbide batzuk. Dirua PFEZren bidez jasotzea, adibidez.

Niri dagokidanez, badakit adinean gora egin ahala gauzak gero eta gogorragoak jarriko zaizkidala. Batzuetan pentsatzen dut irtenbide bat izan daitekeela pisua saldu eta zaharren egoitza batera joatea. Baina halako leku batean egotea, pertsona independentea naiz. Egia esan, nahiago dut geroan ez pentsatu. ■

Oaxacako Hezkuntzako Langileen Sindikatuko kideak

“XXI. MENDEAN AMERIKAN EGINDAKO LEHEN IRAULTZA SOZIALA OAXACAKOA IZAN ZEN”

2006an ukan zuen gatazkak abiapuntua, eta hasiera hura izan da, orain artean, gehien mediatizatua. Irakasleek protestak egin zituzten landa eremuetako eskoletako baldintzak hobetzeko. Orduko gobernadoreak, Ulises Ruiz Ortizek, polizia bidali zuen haien kontra eta gatazka handitzea besterik ez zuen lortu. Handik aitzina, APPO (Oaxacako Herrien Asanblada Herrikoia) sortu eta inguruetako mugimendu sozialak eta herritar andana elkartu ziren “komuna libre” deritzon une historikoan.



Joanes Etxebarría

Gobernuaren ordezkariak indargabeturik gelditu ziren hilabete batzuetan eta komuna libre mugimendu herrikoiak bere esku hartu zuen hiriko autoritate figura. Errepresioa bortitza izan zen, eta barrikadetatik iritsi ziren nazioartera gatazkaren irudiak. 2006ko azaroaren 2an, Prebentziozko Polizia Federala hirian sartzen saiatu zen, eta sei bat orduko borrokaren ondoreatik, poliziak atzera egin zuen. Garaipen hori gogoan bizirik gelditu da, nahiz eta gaur egun egoera oso bestelakoa izan. Irakasleen borrokak segitzen du, Oaxacako plazan egoten baitira kanpamentu pedagogikoan, mobilizazioekin segitzeaz gainera. Baina orain, aldarri nagusia Gobernuak plantan ezarri nahi duen erreforma zabala saihestea da, oinarritzko eskubideak urratuko lituzkeelako.

Elkarriketari erantzun dioten SNTE hezkuntzako langileen sindikatuko bi kideek ez dute haien izen edo irudirik agertzerik nahi, errepresioaren beldur direlako. Bietatik bat sindikatuaren estatu mailako koordinazio ordezkaria da.

Zer gogoratzen duzue 2006ko gertakarietatik?

Sinbolikoki oso azkar joan zen dena Oaxacako mugimendu herrikoia errentzat, liskar handiak izan ziren eta lortu genuen poliziak atzera egitea. Gertakariak pasa zirenetik hamar urte bete diren honetan, sindikatuak segitzen du justizia eskatzen, baita zigorrak exijitzen ere garai hartako errepresioaren arduradun intelektual eta materialentzat. Ruiz Ortiz gobernadore ohia ere zigortua izan dadin eskatzen dugu, irakasle mugimenduaren kontrako errepresioa agindu baitzuen.

Ordutik hona 28 hildako izan dira eta inor ez da kartzelara joan, eta gobernadore ohiak politika egiten segitzen du. Horregatik segitzen dugu justizia eskatzen.

Garai hartan Oaxaca komuna libre izendatua izan zen.

Gure polizia ere sortu genuen: POMO (Oaxacako Magisteritzaren Polizia). Ez genuen gehiago polizia irakurik ikusi nahi eta gure poliziak harrapatzen zituen, adibidez, saltegiatara sartzen ziren lapurrak.

Zentro historikoaren zaintzaz arduratu ginen. Kolonietan [auzoetan] asanbladak egiten ziren eta barrikadak zeuden alde guztietan gobernadore botatzeko. Ez geneukan alderdiek sortutako gobernuen beharrik, eta mugimendu herrikoiak ordezkatu zituen, nahiz eta emeki-emeki gobernua berriz osatzen joan zen. Gure ustez hura izan zen XXI. mendean Amerikan egindako lehen iraultza soziala. Polizia federala Zócalo plaza nagusian indarrez sartu zen azaroaren 25ean gu handik botatzeko.

Gaur egun zertan zaudete?

Azken istiluak joan den irailaren 15ean gertatu ziren. Aurretik, ekainaren 19an, Nochistlan hiriko autopistako blokeoa hausterakoan erresistentzia gaitza erakutsi zuten irakasleek eta herritarrek poliziaren parean. Zortzi pertsona hil ziren eta andana bat zauritu. 37 blokeo egin ziren estatuan egun hartan, nazioarteko kamioiak blokeatu asmoz eta gobernuarekin berriz ere negoziatzeko hasteko helburuz. Gobernuak blokeoak irekitzea manatu zuen eta errepresio gogorra izan zen.

Hasiera batean soldata igotzea zen aldarrikapen nagusia, gaur egun hezkuntza erreformaren kontrako mezuak gailendu dira.

2012ko abenduan Enrique Peña Nieto presidenteak hezkuntza erreforma iragarri zuen. CNTE [Irakasleen Koordinadora Nacionala] segituan hasi zen mobilizazioak antolatzen erreformaren kontra. Mobilizazioak 2013ko otsailaren 26an areagotu ziren, erreformaren dekretua publiko egin zutenean. Plantan ezarri nahi diren neurrietan bereziki arbuizatzeko duguna irakasleen ebaluazio mota berri bat da, antzinatasun eskubideak kentzen dizkiguna, besteak beste. Guk nahi duguna formazio ebaluatua da, gu laguntzeko, ez zigortzeko. Haien ideia da ebaluazioak egitea jendea kanporatzeko.

Beste sektore batzuek bat egin dute borroka honekin, herri indigenek adibidez. Haiek dira gehien hunkiak izanen, 30 ikasle beharko baitira talde bat mantendu ahal izateko eta haien komunitateetan eskolak oso txikiak dira. Egia da gure borroka erreformaren kontrakoa bilakatu dela.

Atxiloketak, desagertzeak, hilketak... Mexikoko Gobernu oso bortitza da gatazka sozialetan. Nola egiten diozue aurre errespisioari?

Buruzagi gisara ez dugu beldurrik, lau urtero txandak izaten dira eta buruzagitza aldatzen da. Hemen asanbladak du agintzen, eta sekula zulora erortzen bagara kideek ateratzen gaituzte mobilizazioaren indarrak. Ez gaude betiko.

Eskolara bueltatzea deliberatu zenuten azkenean, joan den maiatzaren 15az geroztik lanuztean zeundetelarik.

Abuztuaren 7an deliberatu genuen klaserantz itzultzea. Baditugu kideak hemen go [Oaxacako plaza nagusiko] ordezkariak ziurtatzen dutenak etengabe, baina hurrekin lanean segitzen dugu. Sindikatuko 22. sekzioko kontu korrontea blokeatu zuten agintariek, eta ezin dugu baliatu ezta esku-papera inprimitzeko ere. Horregatik hemen jendearen borondatea ere beharrezkoa da. Informatzen segitzen dugu halere, ditugun ahal txikiekin.

Zein urrats datoz gero?

2018an lehendakariak aldaketa etorriko da. Magisteritzak orientazio politi-



Oaxacako herritarren eta Mexikoko Poliziaren arteko istiluak mundu mailako albiste bilakatu ziren 2006an. Hinrich S. argazkilariarena da goiko irudia eta behekoa Jaciel-Baruc-ek egin du.

» “Ez geneukan alderdiek sortutako gobernuen beharrik, eta mugimendu herrikoiak ordezkatu zituen”

koak eman beharko ditu egoera ekonomikoa, osasunarena zein hezkuntzarena aztertuz, besteak beste. Ez dugu alderdiekin inolako loturarik, baina demokrazia areagotzea nahi dugu. Jendea bultzatu nahi dugu bere botoaz gogoe-tatzera. Peña Nietok abiatu erreforma orokorra da, eta energia arloan Pemex petrolio enpresa publikoaren erdia kanpoko enpresen esku dago jadanik. Erreforma aurrera doa, eta 2018ko hauteskundeak garrantzitsuak izanen dira geroarentzat. ■

GEU ELKARTEA ETORKIZUNEN GASTEIZ EUSKALDUNA IRUDIKATZEN

25 urte beteko ditu 2017an Geu elkarteak eta urteurrenaren karietara *Zeuzara Geu* gogoeta saioak antolatu zituen iragan udazkenean, urriaren 22an eta azaroaren 5ean eta 19an Oihaneder Euskararen Etxean. Hogeitaka lagunek 25 urtean egindako bidea baloratu zuten, baina, oroz gain, etorkizuneko Gasteiz euskalduna irudikatu zuten, eta balizko Gasteiz euskaldun horretan, Geu elkarteak bete beharko lukeen egitekoaren inguruan ere gogoeta egin. Elkarteko bazkideez gain, bertan bizi diren beste hainbat euskaltzaleri ere egin zieten gonbidapena.



Miel A. Elustondo

ARGAZKIA: GEU ELKARTEA

Urriaren 22ko saioan, lehenik –eta gisako sarrera, ongietorri eta elkar eza-gutzeko dinamiken ondotik–, euskaltzaleen elkartearen funtzioen gainean jardun zuten Euskaltzaleen Topaguneko kide Iñaki Telleriak eta Iker Martinez de Lagosek. Horretarako, bi ikuspuntu hartu zituzten aintzakotzat: lehena, hizkuntzaren egoera aztertze-ko erabiltzen ditugun hiru dimentsioak genituzke –hots, hiztuna, hizkuntza komunitatea eta lurraldea–; aldiz, bigarren ikuspuntua litzateke euskaltzaleen elkartearen egitekoari dagokiona: egin, eragin edo izan.

Saioan egindako lehen ariketak “10 urte barruko Gasteiz euskalduna” izan zuen aztergai, eta horixe bera erabili zuten lehen galdera, hau da, etorkizuneko Gasteiz euskaldun horren nolakoa. Partaideek, xede hori buruan, datozen urteetarako lehentasunak markatzera jo zuten, ideia zaparrada handia jaso eta gero. Aipatu lehentasunen artean dira ondokoak: inflexio puntuaren beharra, aldaketa positiboa gerta dadin; helburu estrategikoak eta egingarriak, egunero-koak, banatu; euskaldunen aktibazioa landu; pedagogia soziala erabili; sozio-

linguistikatik ez ezik, psikolinguistikatik ere edan; makrotik mikrorra igaro; transmisioa sentsibilizaziotik eragin, hizkuntzaren funtzio praktikoak, berriz, behar sozialetik; erreferentzialtasun espazioak irabazi, sortzaileak erakarriz; eskolan eragin, D eredurantz joz; etorkinak gurrera ekarri; Gasteizko auzoak kontuan hartu; eragileen arteko elkarlana sustatu; euskalgintzaren baitan gogoeta bultzatu, haren estrategiak landu...

Bigarren saioan, lehenengoan seinalatutako lehentasunak berreskuratu eta ekintzak proposatzeari ekin zioten, ondoko urteetan ekintza batera izateko helburu, hiru xederen inguruan. Lehen litzateke komunitatearen eta norbanakoen aktibazioa, eta sentsibilizazioa. Euskal Herrian hedatzen ari diren hiztunen ahalduntze ariketa kolektiboen gisakoa proposatu zuten Gasteizen. Eredu hartu zituzten Aguraingo 75 ordu euskaraz, Donostiako Egiako Euskaraz bizi, Lasarte-Oriako 40 egunetako erronka, Hernaniko Euskara ari du... Gasteizen gisako ariketarik gauzatzekotan, zenbait auzotan esperientzia pilotuak egitea, edo Gasteiz osoan egitea eztabaidatu zuten partaideek.



Erreferentzialtasuna litzateke bigarren xedea, eta, horri denaz bezainbatean, Gasteizen euskararen eta euskaldunen komunitatearen ikuspegi globala lantzea eta komunikazio plana egitea proposatu zen. Horrek, nahitaez, Geuren marka indartzea leharke, Geu euskararen gainean ahots kualifikatu bihurtzea, eta hedabideentzat ere erreferente izatea lortzea.

Xedeotan hirugarrena erakunde eta eragileetan eragitea litzateke, eta horretarako, erakunde publiko diren Gasteizko Udalarekin eta Arabako Foru Aldundiarekin konfiantzazko eremuak sortzea onetsi zuten. Orobat, Gasteizko euskalgintza egituratzea.

Azkenik, laugarren xedea, haur eta gazteen artean euskararen erabilerari eragitea lukete. Horretarako, esan zuten, euskarak prestigioa irabaztea da lehentasuneko eginkizuna, “lerro estrategikoa”. Bi egitasmo zehatz ere proposatu zituzten gogoetara bildutako partaideek, “Kuadrilategi” moduko proiektuak, eta aisialdi taldea sortzea Geu elkartearen baitako.

Azaroaren 19ko saioan –hirugarrena eta azkena–, Geu elkartearen interes



Hogeitaka lagun elkartu ziren gogoetarako, batzuk Geu-ko bazkideak, besteak elkarteak ez diren gasteiztarrak.

taldeak identifikatu zituzten bertara bil duek, hau da, Gasteizko euskaltzale eta Geu elkartearentzat lehentasunezkoak diren interes taldeak, dela Geu-ren ekin tzen eta estrategien helburu direlako, dela Geu-rentzat aliatu eta laguntzaile di relako. Horrekin batera, interes taldeok kontuan hartu eta ekintzetan sakondu zuten. Aktibazioan eta haurren nahiz gazteen erabilera lantzeko taldeetan proposatutako ekintzak zehaztu zituz ten, eta horrekin batera, erreferentzial- tasuna lantze aldera komunikazio-hel- buruei edukia eman zieten.

Ondorioak, zain

Gogoeta prozesua buruturik ere, Geu el- karteak ez da oraindik ondorioak balora- tzeko asmotan. Dinamizatzaile taldeko Gidor Bilbaok esan digunez, “nahita utzi dugu denboratxo bat, jasotakoari pers- pektiba zabalagoarekin begiratzeko”. Alabaina, datoen urteetarako lehenta- sunak aurreratzeko moduan izan dugu Bilbao EHUKo irakaslea: “Erakunde eta bestelakoetan eragitea; elkartearen erreferentzialtasuna lortzea; haur eta gazteen erabilera eragitea; eta, azkenik, komunitatearen eta norbanakoen sen- tsibilizazioa eta aktibazioa lortzea”. Bes- talde, jakin dugunez, ildo horietarako egitasmo zehatzak ere proposatu dira.

Gasteizen egin den gogoeta Arabako beste eskualdeetara zabal litekeen gal-

GEU: IBILBIDEA ETA ERRONKAK

Lehen saioan egindako ariketarik bat, elkartearen gainekoa zen. Geu elkar- tearen iraganari, orainari eta etorkizu- nari begiratu zioten gogoeta proze- sura bildutako partaideek, bi galdera ardatz harturik. Lehen galdera, hau- xe: “Zer dakizu eta zer ez dakizu Geu elkarteari buruz?”. Bigarrena, aldiz, “Zeintzuk izan behar dira zure iritziz Geu elkartearen erronkak etorkizu- nean?”. Ez dago esan beharrik asko egiten duela Geu-k Gasteizen, beste- rik da gasteiztarrek horren berri xuxen duten. Esaterako, jakina da Mintza- laguna egitasmoa kudeatzen duela elkarteak, baina jendeak ez daki min- tzalagun kopurua emendatuz doala urterik urtera. Gasteiztarrak ez daki, adibidez, *Alea* astekariak Geu ardu- ratzen dela eta *Alea fm* irratsaioa ere bere esku duela, guraso elkarteekin hainbat lan egiten duela eta aholkula- ritza eta prestakuntza eskaintzen diz- kiela –baita begiraleei ere–, ibilbide gidatuak antolatzen dituela, “Geu-re- kin mendira” programa...

Ohi denez, elkartearen egitura eta funtzionamendua zeharo arlo ezeza- guna zaie gasteiztarrei: nor dagoen Geu-ren atzean, zenbat bazkide di- tuen, zein ezaugarri dituzten bazki- deok, zein funtzio duten, nola ko- munikatzen diren bata bestearekin elkarteak eta bazkideak, eta abar.

deturik, Gidor Bilbaok ez du zalantzarik: “Metodologiak eta dinamikak balio dute –beste zenbait lekutakoak balio izan digu guri–, baina gogoeta ezin daiteke partekatu; ondorio beretsuetara iriste- ko balitz ere, komunitate bakoitzak bere gogoeta egin behar du”. Nork bere lana, eta gogoeta, du eginkizun. ■

BABESLEA: HONDARRIBIKO UDALA



Hondarribia
euskaraz bizi



BELTZEK EZ DAKITE IGERIAN



Nagore Irazustabarrena
Uranga
@irazuastabarrena

Martinika, 1679. Esklabo-ontzi bat hondoratu zen uhartearen parean, eta esklabo afrikar batek –haren izenik ez da gorde– 60 ordu eman omen zituen igerian lehorrera iritsi arte. 300 urte-tik gora beharko zituzten zuriek marka hura ofizialki berdintzeko.

1831n, Tice Davids izeneko Kentucky-ko esklaboak Ohio ibaira bota zuen bere burua, ihesi egin nahian. Jabea ontzi baten ibili zen hari segika ibaian behera, esklaboa begien bistatik galdu eta hiltzat jo zuen arte. Baina igerilariak Ripleyra (Ohio) onik iristea lortu zuen.

1884an europar jatorriko kolono batek afrikar bat marraztu zuen igerian. Marrazkian ikus daitekeenez, afrikarra australiar crawl estiloan ari da. Kontua da australiar crawla ia hogei urte geroago “asmatuko” zutela Cavill anai-arreba australiarrek; berez, amerikar indigenek, hala nola yamanek, onek eta tehuelcheek, erabiltzen zuten besokada Salomon uharteetan erabili ohi zuten ostikoarekin egokituta osatu zuten estilo bizkor eta eraginkorra, hasieran Mendebaldean igeri egiteko modu barbaro eta ez-europartzat jo zutena.

Pasadizo horiek guztiak eta beste batzuk bildu zituen Lee Pitts Jr. igeriketa irakasleak 2007an, *Black Splash: The*

History of African-American Swimmers (Ziprztin beltza: igerilari afrikar-amerikarren historia) izenburuko artikuluan. Eta bilduma horretatik zera ondoriozta daiteke: afrikarrak oro har igerilari bikainak zirela, eta beltz-tratulari eta esklabo-jabeek dirua galtzen zutela trebetasun hori dela eta.

Hala, salgai bizidunek uretan ihes egin ez zezaten metodo eraginkorrak jarri zituzten martxan. Esklaboek urari beldurra izan ziezaioten, besteak beste, esklabo managaitzak uretan murgiltzen zituzten ia ito arte, eta uretan bizi ziren kreatura beldurgarriei buruzko istorioak zabaltu zituzten. AEBetan, Sezesio Gerra bukatuta (1861-1865), esklabotza abolitu zuten, baina ordainetan Jim Crow legeak edo segregazio legeak abiarazi zituzten. Eta indarrean egon ziren 1890eko hamarkadatik 1965 arte. Kostaldeko gune turistiko nagusietan sarbidea ukatu zitzaizen beltzei eta aurrerago, igerilekuak hedatu zirenean, *Whites only* kartela ipini zieten instalazio horiei ere.

Beltzen eta uraren dibortzio indutitu horri oinarri zientifikoa ematen ahalegindu zenik ere izan zen. 1950eko eta 1960ko hamarkadetan egindako zenbait ikerketak zioten atleta beltzek oro har zuriek baino gantz gutxiago dutela eta, gantzak flotagarritasuna ematen duenez, beltzak ez direla igeriketarako egokiak.



BETTMANN / CORBIS

Monson Motor Lodge moteleko zuzendari James Brock igerilekuan azidoa isurtzen, segregazioaren aurka protesta egiteko uretan sartu ziren aktibista beltzak uxatzeko, 1964ko ekainean.

Zorionez, hipotesi horiek berehala gezurtatu zituzten. Zoritxarrez, ordu-rako urarekiko beldurra barneratuta eta errotuta zegoen beltzengan; igerian txarrak direla sinetsita zeuden. 2016ko Rio-ko joko olinpikoetan, Simone Manuel-ek bi urrezko domina eta beste bi zilarrezko irabazi zituen; banakako proba olinpiko bat irabazi zuen lehen igerilari beltza izan zen. Baina, AEBetako Gaixotasunen Kontrolerako Zentroen sarearen arabera, herrialde horretan urtero itotzen diren bederatzi pertsonatik hiru baino ez dira zuriak, populazioaren %64 inguru izan arren. ■



D.R.

Mugarik Gabeko Medikuen hazia

1967an Biafrak independentzia aldarrikatu zuen eta berehala nigeriar ejertzitoak lurraldea setiatu eta eraso egin zion. Lehortek ahuldutako biafrarrak goseak hiltzen hasi ziren, bonbetatik bizirik ateraz gero. Sarraskia Nazioarteko Gurutze Gorriko Batzordearen muturren aurrean gertatzen ari zen eta erakundeko zenbait mediku frantzia-

rrek Gurutze Gorriak egoera salatze-ko gehiago egin beharko zukeela uste zuten. Parisera itzulitakoan, prentsan salatu zuten Biafran gertatzen ari zena. Eta, besteak beste, *Tonus* medikuntza astekariak jaso zuen horren berri. Medikuei haiek, *Tonusen* erredakzioan hain zuten, Mugarik Gabeko Medikuei larrialdi brigada sortu zuten 1971n. ■

BIDAIA

21

23:00_{tan}



xanOlive

www.pagoa.eus

PAGOA

KAFE ANTZOKIA OIARTZUN

A: 10€ T: 15€

Oiartzun: Amazkar, Elorsoro,

Pagoa Kafe Antzokia

Donostia: Donosti Rock

Erreterria: Arkaitza Taberna

**Internet: pagoa.eus, ticketea.com, Colectivia,
Mauka, oferplan eta www.ticket.kutxabank.es**

Pagoa Kafe Antzokia:
Irekia
ostirala, larunbata

17.00tik - 06:00ra
Erreserbak: 619 421 153
@PagoaAretoa
kafeantzokia@pagoa.eus

**Pagoaldea 7, Ergoien auzoa
20180 - Ojartzun, EH.**

berria

antza  **ARGIA**
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

PAGOA

Euskal Herri berriko artisau garagardoa



2017

Orbeletan



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Orbel kontuak ekarri ditudala paperera eta, irakurle batek hosto ihar horiek landarezaleontzat zein onuragarriak diren aipatu zidan; krixtaua zen, eta “bedeinkazio” bat zirela zioen.

“Orbel” hitza iraingarri, zaharraren eta zimurtuaren pareko erabili izan bada ere, bedeinkazioa denik ez dut aitatu nik, baina baliagarria bai, bai horixe! Eta, landare artean lana tamainan izaten den sasoi honetan, orbela probetxutan ezartzera bultzatu nahi zaitut.

Orbela jasotzea da lehena; izan zaitez orbel-biltzaile. Ahalik eta garbien; orbel hutsa bilduz gero, hobe, errazago gobernatuko duzu. Ontzietan, zakuetan edo pardel handi batean lopilatuta, nahi duzun eran bildu eta jaso. Orbel-meta ere aitatzen da batean eta bestean, baina nik sekula ikusi gabea dut metan orbela; pilan bai, bazterrera utzitako arrantza sare larriarekin ederki helduta, hostoak haizeari arrantzatuak izan balira bezala... Zutikako bukoia balitz bezala, hesolatxo batzuekin eta alambre sarearekin itxituratxo bat egitea ere ez da zaila.

Lurra berdin samarra bada, belarra mozteko makinarekin ere bil daiteke hostaila. Gora samarretik jo belarra, eta,



Orbelari etekin handia atera dakioko. Luarra egiteko, esaterako.

ANGEL MAR

harekin nahasian, hostoak bildu. Hosto hutsa ez izanagatik, ez da, Beñat Sarasolak esaten duen bezala, saguzarraren eguerdiko doministikua.

Orbela gauza ugaritarako erabil daiteke. Landareei azpiak egiteko, adibidez. Hostoa dagoen bezala edo nahi bada txikitua, landareen ipurdian jarri; babes eta ongarri izango da. Luarra egiteko ere gai ona da. Nik ezagutzen dudana luarririk onena honela egiten da: orbela eta

ukuilutik atera berri den simaurra bata bestearen gainean jarri arrabeteko geruzetan. Tarteka, harrotu, eta heze eutsi. Luartzea laguntzeko, irakindako asun-mindaz busti. Urtebetean luarra dena beste urtebetez utziz gero, humus edo lur beltz ederra izango da. Lur beltz hori egiteko beste era bat: orbel bustia plastikozko poltsa beltz batean sartu, zulo ugari egin arnasa har dezan eta bazterrean utzi urte eta erdi edo bi urte. ■

IRAKURLEAK ✉ GALDEZKA

Galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.eus helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Kaixo Jakoba, zein izan daiteke garairik egokiena intxaurrondoa tokiz aldatzeko? Eta nola?

Ioseba Berezibar (Aretxabaleta)

Kaixo Ioseba. Intxaurrondoa (*Juglans regia*) hostaia galtzen du. Soiltsen diren espezie guztiak bezala udazkenean edo neguan aldatu behar da, abenduan hasi eta otsaila

bitartean. Gauza bat bakarra izan kontuan: izotza izateko beldurrik ez dadila izan egun horietan. Landatzeko zuloan lurra harrotu egiten da eta izotz handia badator lurreko tartetean barrena sartu eta sustraiak izotzu ditzake.

Nola egin? Landarea ahal den lur guztiarekin mugitu behar da. Ateratzerakoan ahal den eta sustrai kopuru handienari eta ahal bada oso-osorik eutsi. Sustrai handiak mozten badituzu, landareak zaputza izateko arriskua izango du eta urte batzuetan agian buelta eman ezinik egongo da. Sustraietako zauri handiak babestu: salda bordeles pixka bat ontzi batean jarri, ur ttanta batzuk erantsi, ondo nahasi eta ore edo pasta antzeko horrekin busti zauriak. Hostaia berria ateratzen hasten denean asun urarekin ureztatzen baduzu alde ederreko indarrean etorriko da.



Marc Badal haziei buruzko informazioa ematen.

HAZIERA PROIEKTUA

Hazien artxiboan 80 hazi edonorentzat eskuragarri



Garazi Zabaleta
@tirikitran

Nekazaritza iraunkorraz eta elikadura burujabetzaz hitz egitean, hazien gaia-ekin egiten dugu topo aurrez aurre. Tokiko barietateen erabilpena, kontserbazioa, berreskuratzea, eta zabaltzea geroz eta garrantzia handiagoa hartzen ari dira. Haziera proiektuarekin Donostiako Cristina Enea Fundazioan hazi barietate ezberdinen artxiboa abiatu zuten 2013an, eta gaur egun 80 hazi dituzte edonorentzat eskuragarri.

Haziak hartu eta eman

Hazieraren helburu nagusia ez da hazi barietate zaharrak berreskuratzea, Marc Badal proiektuko kideak adierazi digunez: "Batez ere baratze txikiak dituen edo esperientzia gutxi duen jendea etortzen da Hazierara. Formazioa, sentsibilizazioa eta dibulgazioa dira gure helburu nagusiak". Izan ere, hazien kontserbazioa eta berreskurapenean Hazien Sareak dihardute lanean batez ere, eta horietara bideratzen dituzte esperientzia gehiago duten pertsonak (Nafarroako Hazien Sarera edota Euskadiko Hazien Sarera).

Funtzionamendua honakoa da: edozein pertsona joan daiteke Hazierako artxibora eta bertan dauden haziak har ditzake, doan. Haziak erein, landareak

zaindu eta horietatik berriz haziak hartzen saiatuko dira 'zaintzaile' horiek. Dena ondo badoa, lortutakoetatik zenbait beraientzat gordeko dituzte, eta beste batzuk artxibora itzuli.

Hazien kontrola berreskuratu beharra

Hazi barietate lokalak nekazaritza ekologikorako bereziki interesgarriak direla azpimarratu digu Badalek: "Genetikoki oso heterogeneoak izanik, arazoan aurrean landareetako batzuk bizirik irautea errazagoa da, negutegi edo kimikoen beharrik gabe".

Historikoki, nekazariak beraiek gorde izan dituzte haziak (emakume baserritarrek, batik bat), auzokideekin edo herriko merkatuetan elkartrukatuz... Tokiko sareak ziren, beti ere. Monsantoko moduko multinazionalena kontu berrira da, duela hamarkada gutxiago. Eta denbora tarte txikian munduko hazien kontrol handiena eskuratu dute. Baina badira pixkanaka horri aurre egiten hasi eta nekazaritza mundu tradizionalak utzitako ondare aberatsa berreskuratzeke lanean ari direnak, Hazien Sareak edota Haziera bera kasu. Badalek esan bezala, "haziak botere ekonomiko eta produktiboaz gain, botere sinboliko oso indartsua ere badutelako". ■



Urtarrilaren 4an, Hernaniko kultur etxean Ainara Azpiazu "Axi"ren "Arian arian" erakusketaren barruan egin zuten "Altza Porru" liburuaren hitzaldia. Argazkietan, Axi, Antton Olariagak eta Maialen Lujanbiok egindako irudi bana.

HITZALDIAK

Urtarrilak 13: Oiartzun

Udal Batzar aretoan, 18:30ean.
Elika kooperatibaren aurkezpena.

Urtarrilak 23: Otsagabia

Herriko eskolako kideentzat, 17:00etan.
Eta ondoren guztiei irekia (18:30 aldera)
Bizi Baratzea liburuaren aurkezpena.

GURE GAIAK DIRA GURE BALIOAK | PARTE HARTU ETA IRABAZI SARI HAUETAKO BAT



Aste honetako nabarmendua

ENERGIA TRANTSIZIOAK LIBURUA ETA DVD-A

2

Energia Trantsizioak: Iraunkortasuna eta demokrazia energetikoa

Lan honen eta trantsizio sozioekologiko eta energetikoei buruzko beste hainbat lanen sorburuan, erregai fosilen eta hondakin-hustulekuen agortzea eta sistema sozioekonomikoaren beraren ahitzea daude nagusiki. Dena dela, indar-hustuta egonagatik ere, halako panorama hainbat eta hainbat pertsona eta kolektibo errealitatea eraldatzea eta etorkizun hobea izateko aurrera urratsak ematera akuilatzen ditu.

Beste errealitate batzuetarantzko trantsizioa egiteko beharra eta nahia dago, errealitate bidezkoago, demokratikoa eta ekologikoagoetarantz. Bada horren alde lanean diharduenik ere eta, hain zuzen, liburu honetan energiaren alorreko hainbat proposamenen berri ematen da. Liburuaz gain, Piztu Aldaketa! Dokumentala ere zozketatuko dugu urtarrilean zozketan parte hartzen duten ARGIAkoen artean.



Eragile hau hobeto ezagutzeko:



EKOLOGISTAK MARTXAN


944 790 119

www.ekologistakmartxan.org

#herrien mundua
#iraunkortasuna
#elikadura-burujabetza

Hilabete honetako sariak

1



Bilau taldearen
diskoa
5 KD

2



Ekologistak Martxan. *Energia Trantsizioak* liburua + DVD
3 ale

3



Olatukoop-en *Etxikaria*
aldizkaria
5 ale

4



Estitxu Eizagirreraren *Bertsoaren Haria* Hernanin liburua
Ale 1

Parte hartzeko: ☎ 943 371 545 | gunea@argia.eus | www.argia.eus/gunea

Eragilea bazara, zabalkunderako materiala baduzu eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan.



Hitzetatik praktikara



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Zenbat aldiz irakurriko ote genuen orrialde hauetan enpresa edo elkarteren baten antolaketa ereduaz idatzitakoa. Uste dut ale honetan bertan ere gaiaz hitz egiten dela, 25. orrian. Horizontaltasuna edo berdintasuna bezalako hitzak daude modan antolamenduaz jarduterakoan. Ahoa betetzen duten hitz potoloak biak, errealtatean praktikan jartzen badira ederrak. Eta beti besteez aritu gabe, nola antolatzen da ARGIA?

Motzean esanda, lan-taldeka. Alegia, etxe guztietan bezala, badaude eguneroko lanak, nahiko zehaztuta egoten direnak nork eta nola egingo dituen; kasu honetan dela webgunearen kudeaketa, astekariko erredakzio lanak, publizitatea, idazkaritza, administrazioa... Baina egoten dira urtean zehar suertatzen diren edo urte osoan zehar landu behar izaten diren hainbat behar ere. Hauek dira lan-taldeka antolatzen direnak: Durangoko Azoka, Argia Sariak, Argia Eguna, esaterako *Aktualitatearen Gakoak* edo liburuak izan daitezkeen produktu gehigarriak, Bizi Baratztea, harpidetzak eta sustapena.

Eguneroko lanez gain airean geratzen direnak askotan zuzendaritzaren esku geratzen zirela ohartuta eman zen duela bi urte metodologia aldaketa. Eta itxuraz funtzionatzen du. Joko-arauak aldatu egin dira, eta baita jokalarien rola ere. Ekipo osoak hartzen du parte lan-talde hauetan, eta sekzio ezberdinetako lankideak nahasten dira. Ikuspegia aberasteaz gain, gaitasunean ere irabazten da; begi eta buru ezberdinak elkartzen baitira lan-taldeetan. Bakoitzak aukeratzen du gustuko duen taldea, eta gutxienez batean eta gehienez hirutan eman dezake izena. Gutxiengoa, noski, denek parte hartu dezaten. Eta gehiengoaren neurria? Saltseroenak mugatzeko. Batzuk eroso sentitu ohi dira agindutakoa beteta, eta beste batzuk aginduta. Beraz, batzuei mandoa hartzeko proposamena luzatzen zaie, eta beste batzuei pixka bat askatzeko.

Urteko akziodunen batzarra izan da orain egun batzuk, eta bertan erabaki dira lan-talde berriak. Aurtengo helburua da talde bakoitzean sekzio bakoitzetik gutxienez pertsona bat egotea, ARGIAren barruko esparru guztiek lan-talde bakoitzean beren alea utz dezaten. ■

“(ARGIAkoa egiteko arrazoia) Gauzak beste era batera egiten dituzuelako eta horrela, posible dela erakutsi: kazetaritza, eta orain harpidetza kanpaina ere bai! Mundialak zarete, benetan. Eskerrik asko!”

Maite Arnaiz Etxenautia,
ARGIAkoa

Sarean arrantzatua

Alfredo Ramirez

@erreharria

(erredakzioan itzulia) Aukerarik balego, emango al zenioke @eitb-ra bideratzen den zure zergetako diruaren zatia @halabedi edo @argia bezalako beste hedabide bati?

%9 Ez

%45 Bai

%46 Non sinatu behar da?



Proposatu ARGIA Sarietarako hautagaiak:

Dagoeneko hainbat hautagai jaso ditugu irakurleengandik, eskerrik asko! Eta saridunak hautatzen ari diren lan-taldeak ekin dio zehazteari. Baina azken aste haxe duzu zure proposamenak egiteko. Bidali komunitatea@argia.eus-era alor hauetarako hautagaiak: ikus-entzunezkoak, irratia, internet, prentsa, komunikazio ekintza eta merezimenduzkoa. ARGIAko lantaldean osatzen dugu epaimahaia, eta zuek bidalitako hautagaiak zuzenean zerrendara sartzen ditugu.

Mitxelko Uranga, saiogilea

“SISTEMAREN HELBURUA EZ DA PENTSARAZTEA”

Berango, 1978. Iazko Euskarazko Saiakerako Euskadi Saria jaso zuen *Tartaroa. Mina, boterea eta egia* (Pamiela) saioaren bitartez. Globalizazioa eta kontsumismoa dira liburuaren hari nagusiak. Ondoren, Miguel Unamuno Saria irabazi du *Misentropia* saioari esker. Zazpi saiakera liburu argitaratu baditu ere, ez da bereziki ezaguna euskal letren munduan. Filosofian dokorea da. Gai hori irakasten du Sopelako Ander Deuna ikastolan.



Mikel Asurmendi

@masurmendi

ARGAZKIA: DANI BLANCO



Euskadi Saria jaso ostean, “ez nuen inondik inora espero, ni ez nau inork ezagutzen” esan zenuen. Tira, funtsezkoa liburu da, ez egilearen izena, ezta?

Ez dakit guztiz horrela izaten den. Sarien inguruan iritzi txarra daukat. Euskal literaturaren munduak endogamia moduko bat bizi du, epai-mahaikideek badakite nork idatzi duen, lana anonimoa izan arren. Adibiderako, Unamuno Sarira bi testu bidali nituen, eta epaile batek esan zidan: “Bai, eta beste hori ere zurea da”. Bai bibliografiarengatik bai idazteko moduarengatik, gure aurkez-

pen txartela barruan doa. Areago Euskadi Sariaren kasuan, liburuak eta izenak ezagunak izanda, bada, ez nuen inondik inora espero, Eduardo Apodakak irabaziko zuelakoan nengoen.

Inportantea al da saritua izatea?

Saritua izateak badu bere alde ona eta txarra. Ona, zurekin elkarrizketa hau egin izana. Baina, batez ere, alde txar bikoitza du. Batetik, besteen kritiken jomugan jartzen zaitu, egiak ez direnak entzun behar dituzu. Adibiderako, idazle batek ni propagandista hutsa

naizela esan berri du, postuak igo nahi ditudala. Ez daukat posturik igotzeko beharrik, nagoen lekuan ederto bainago. Ez dut inoren propagandarik egiten, frankotiratzailea naiz. Bestetik, plazagizona ez naizen neurrian, ez dut hedabideetan agertzeko inolako desirarik, ezta beharrik ere, ez naiz liburuez biziko eta. Anonimatua oso gogoko dut. Zazpi saio argitaratuta izanda ere, inork gutxik ezagutzen ninduen saritua izan arte, ordea, beste idazle batzuk erabat mediatikoak dira ezer gutxi eginda.

Idazleak, eta saio-gileak ere gutxiago, ez dauka beste ofizio mediatikoagoen famarik.

Orain argitaletxearen munduan apur bat sartzen ari naizenez [Sorzain proiektuaren bultzatzaileetako bat da], merkaturaren jukutriez jabetzen ari naiz. Idazle batek salmenten %10 irabazten du, eta bitartekaritzak gainerakoa; banatzaileak %50, hasteko. Beraz, desoreka itzela da. Idazleak kontsumo gai bihurtu gara. Proportzioan irakurle baino askoz idazle gehiago gara, ez daukagu beste

baztertu dituzten ikusi besterik ez dago, LOMCE da horren adibide. Lehen Filosofia gaia derrigorrezkoa zen Batxilergoko bigarren mailan, orain letretakoentzat soilik eta aukeragarri. Argi dago, sistemaren helburua ez da pentsaraztea.

Greziako mitologia abiapuntu hartu duzu Tartaroa saioan, egungo gizarte globalizatua eta kontsumista aztertu aldera.

Mitoak gustuko ditut, ez bakarrik greziarrak. Euskaldunak, eskandinaviarrak edota zeltak ere bai. Hala ere, liburuan mitoak ez dira oinarria, esan nahi dudanerako aitzakia baizik. Euskal mitologian ez nuen aurkitu adierazi nahi nuenarekin harremana duen ezer. Beharbada, kristautasunak euskal mitoak itxuraldatu zituelako. Mito greziarrak ere aldatuak iritsi zaizkigu, baina greziarrek bi abantaila eskaintzen zizkidaten: denontzat oso ezagunak izatea, eta esan nahi nuenarekin paralelismoa izatea.

Zer dela Tartaroa?

Greziar mitologian hiru infernu eremu ziren, Tartaroa zen horietako bat, non bizigabeek eta bizidunek denek elkarrekin sufritzen zuten. Paralelismo horrek laguntzen du liburuaren tesietako bat ulertzen. Egun denok sufritzen dugu, lehenago herri xeheak soilik, gaur berriz, bai ekologiaren, bai izuaren, bai zaurgarritasunaren menpe gaude denok.

» **“Oligarkiak sustatutako hezkuntza sistemak gizaki abstraktua, despolitizatua eta arrunta nahi du”**

Mundu globala eta euskal errealtatea uz-tzen saiatu zara.

Aurreko saiakeran hipermmodernitate edota kapitalismoa izan ditut hizpide, horien aurreko laueta berriz, euskal kultura. “Zer da euskalduna?” galderari mila buelta eman dizkiot eta erantzunik ez dut. Hamaika definizio daude, baina, nahaspila izugarria ikusten dut. Ez dut uste definizio bakarra eman behar diogunik. Definizio bakarra ematen tematzen gara: euskalduna, euskal hiztuna, euskal kulturaduna, *vascoa*. Onartu behar dugu definizio anitz dagoela. De-

finizio horien errizoma bilatzen edota sinergia batzen saiatu beharko genuke, aniztasuna aintzat hartuz bide bateratu joaten. Antzua da definizio bakarrarekin geratzeara.

Desertua da saioaren beste ardatzetako bat.

Zygmunt Baumanek “modernitate likidoa” adierazpena famatu zuen. Jendarte solido izatetik likidoa izatera pasatu gara. Nik likido orde, harea garela diot. Desertuaren irudia berebizikoa izan zait saioa gauzatzeko.

Nolakoak dira zure ikasleak?

Ez dira ikasleriaren erreferente. Uribe-Kostako ikastola batean ematen dut klasea, 16-18 urte artekoekin batxilergoan. Bertako familiak egoera sozio-ekonomiko altukoak dira. Hipermmodernitatearen paradoxa bizi dugu: sinestarazten zaigu autonomoak eta askeak garela, baina juxtu aurkakoa gara. Beraz, ikasleek ere pentsatzen dute inplikatuak eta helduak direla, baina, adibidez, arrazakeriaz eztabaidatzen dugunean ultraeskuindarren mezuetatik hurbil daudela ohartzen gara. Beren diskurtsoa matxismoaren aurkakoa da, baina praktikan galduta daude. Paradoxa batean bizi dira. Nartzisistak baino, Michel Maffesoliek dioenez, *Homo Esteticus* dira. “Gozatzea eta gozatzea” baino ez dute buruan. Egunkoaz gozatu, gainerakoa ez da euren ardura. Gogoeta bat eskatzen zaienean, %80k esaldi bera darabil: *Carpe diem*.

Heziketa sistemak ez du laguntzen.

Hipermmodernitatearen ezaugarri bat paradoxa da. Gazteen artean lehen paradoxa Batxilergoaren lehen mailan ematen da: “Gorrito dut filosofia, pentsarazi egiten didalako. Orain arte ez dut hala-korik egin”, esaten dute. Heziketa sistemak ez du bermatzen autonomiarako gaitasuna, enpresa munduak ezarria da eta enpresariak heziketa sistema panazea bezala saltzen digute.

Desertu globalizatuan internet da faroa. Nola bizi duzu internet, eskolan?

Irakasle batzuek sakelakoa gelan sartzea debekatzen dute. Niri arriskutsua izanda ere, zer edo zer azaltzen ari naizenean, “erratu zara horretan” entzutea interesgarria iruditzen zait. Jose Antonio Marina pedagogoak dioenez, internet eta bitarteko gailuak neutroak dira.

idazleen lanak irakurtzeko betarik. Antza, publizitatearen bidez zabaltzen diren liburuak irakurtzen dira. *Tartaroa. Mina, boterea eta egia* liburuaren salmenta oso urria zen, baina Euskadi Saria jasotzeaz batera, bat-batean, askoz gehiago saldu da.

Kultura espektakulua da oroz gain. Merkatuak agintzen du. Irakasle zaren aldetik, nola bizi duzu zuk egoera hori?

Oso txarto. Mundu horrek heziketan nola eragiten duen egunero ikusten dut. Filosofia eta giza arloko ikasgaiak zelan

Mailu bat bezala da, apurtu dezakezu buru bat, baina balio dut etxe bat eraikitzeke ere.

Gazteria ez da eredu, klase politikoa ere ez.

Politikariak ospearen eredu bilakatu dira. Azkeneko hamarkadetan politikak behera egin du nabarmen. Podemos Ahal Dugu fenomeno populista da salbuespena, populismoak neurri batean piztu du lokartuta zegoen gazteriaren multzo bat. Politikan eszeptikoa baino, ezkorra naiz, ez dut inolako konfiantzarik alderdietan. Prometatzen dutena eta gero betetzen dutena ez datoz bat, edo oso gutxitan. Nik politika aldarrikatzen dut alderdikerietatik at antolatu daitekeen neurrian, herri mugimenduen bidez egindakoa, hauen bidean erein daiteke aldaketarako hazia. Baina herri mugimenduek ez dute 60, 70 edo 80ko hamarkadetakoa bizitasuna, pil-pilean dagoen feminismoaren salbuespenaz. Gazteen artean, oro har, ez dago politikarako grinarik, kontsumitzeko aukera duten bitartean ez dute mugitzeko nahikaririk.

Kultura politiko berri baten sorburua hezkuntzan dagoela esan ohi da.

Baina hezkuntza klase politikoaren esku dagoen bitartean, zelan egin? Mende baldeko sisteman hezkuntza diseinatu ta dago enpresak behar duen langilea ekoizteko. Azken teknologia berriak direla eta, lanpostu asko desagertuko edo eraldatuko dira. Droneek eta gailuek ordezkatzeko gaituzte. Enpresak aldatzen ari dira eta langile mota ere bai, horretarako heziketa sistema aldatu behar izan badute ere. Gaitasunetan oinarritutako pedagogia landu ezean, nekez sortuko dugu kultura politiko berri bat.

“Jainko berria” bilatzen duen fededuna bizirik dago.

Nietzschek zioenez, jainkoaren heriotzak ekarriko zituen jainkoaren itzalak. Jainkoaren ordezkioak, zientziak, politikak eta kontsumismoa, horiek indarrean daude. Hainbat jainko dago, non eta hipermodernitate horretan, fedearen egarri denak aukeratu dezake nahi duen jainkoa. Oligarkiak sustatutako hezkuntza sistemak gizaki abstraktua, despolizitatua eta arrunta nahi du. Sistema arduratzen da bere beharrez. *Ogia eta Zirkua* dagoen bitartean ez duzu ezeren aurka altxatu beharrik.

SORZAIN ARGITALETXEA: LIBURU ANTAGONISTAK SORTZEKO XEDEZ

Sorzain argitaletxeak irekia izan nahi du. *Erabakitze eskubidea, botere eragilea* (egile askoren artean) eta *Pott Banda. Eki-lisbrista bihotza* (Jon Kortazar) dira bere lehen bi argitalpenak. Mitxelko Uranga da proiektuaren eragileetako bat: “Sor-zain izaki mitologikoa da. Sorgin gaizto bat ei zen, umeak jaio zain egoten zena haiek akabatzeke. Guk, oster, sorzainek umeen ibilbidea zaintzen zutela pentsatzen dugu. Gure kasuan umeak liburuak dira.

Agitaletxe txikiak ixten ari dira, nagusiak ez dira aise bizi. Saiakera ez ote den behar bezala argitaratzen ipini dugu auzitan: “Sor-zain sortzean ez dugu adierazi nahi orain arte pentsamendua edota saioa ez dela zabaltzen behar bezala, ezta guk formula berria asmatu dugunik ere. Baina, egia zor, beste argitaletxeek argitaratzen dutena ez da hainbeste irakurtzen. Azken urteetan saiakera pilo idatzi da eta zenbat irakurri diren aztertzen badugu, oso gutxi dira. Saiakerak ez dira irakurlearengana heltzen, ez dira irakurtzen. Idazten dugunok irakurtzen diogu

elkarri. Eta hori ere, egiten den arabera, oso gutxi. Pamielak asmatu du Upaingo sailarekin. Sailaren arrakasta da, ziur aski, saio laburrak direlako. Hori da nolabait gure asmoa. Saiakerak akademikoa izan beharrean laburra eta arina behar du”.

Irakurle berririk ba ote?: “Guk gazteria ‘bezero’ potentzial ikusten dugu. Ikasleei zer-nolako egoera bizitzera iritsi gaitzekin argitzen zaienean, kezkatzen dira. ‘Baina zer egin daiteke?’, galdetzen dute. Badituzte beren kezak. Gure ustez, liburuaren euren bidea bilatzen laguntzeko ‘gailua’ izan daiteke. Jendartearen aldaketa horren bidez baino ez dugu ikusten. Sorzain-en helburua kultur eragile izatea da, batez ere, eragile politikoa izatea, ez ideologia markatu batekin, baina bai herri mugimendua aktibatzeke moduko politika eragiteko belaunaldi berrietan”.

Arriskatu behar da beraz?: “Bai, eromen puntu bat behar dugu. Argitaletxeak enpresa dira, gu kolektibo bat gara, eta dena musu-truk egiten dugu. Etekin ekonomikorik atera behar ez dugunez, bestelako lasaitasunez heldu diogu ekimenari”.

» “Alderdi politiko guztiek aldarrikatzen dituzte demokrazia eta askatasuna, betiko hitz anpuloso eta polit horiek. Nola daiteke, ordea, eskuin eta ezker muturreko alderdiek aldarri bera egitea?”

“Demokratizazio” eta homogenizazio bortitza gertatzen ari da.

Demokrazia hitza eufemismo hutsa bihurtu da, ez du ezertarako balio. Alderdi politiko guztiek aldarrikatzen dituzte demokrazia eta askatasuna, betiko

hitz anpuloso eta polit horiek. Nola daiteke, ordea, eskuin eta ezker muturreko alderdiek aldarri bera egitea? Hitzek, definizioek, ez dute balio, definizioak ezereza bihurtu dira. Demokrazia ezereza da.

Nola gaingitu hori?

Nekez, Trump fenomenoak ikusirik... Horrek eskuinaren loratzea ekar dezake Europara. Zer etor dakiguke? Nire ametsa kapitalismoa bukatzea da, baina posible ote? Aldaketa beharrezkoa da, baina ez da etorriko jendearen aldetik, kataklismo bat medio edo kapitalismoaren beraren inplosioz gertatuko da. Joseba Gabilondok bere azken liburuan esaten du, “hazkunde honek gainez egingo dio munduari, ez dago ongizate-estatua izaterik guztiontzat, ezinezkoa da”. Beraz, klase ertaina desagertuko da, desberdintasun ekonomikoak are gehiago handituko dira, eta “hirugarren mundu” deiturokoaren altxamendua etorriko da. Gero eta gehiago dira izorratuak. Nik ez dut zer onik espero. ■



DAMARIS PAN



Xabier Gantzarain
www.argia.eus/artea

IZENBURURIK GABE. 2016.

Olioa oihalean. 60x73cm

Banaketa egin beharko da seguru asko aurrerantzean: internet aurretik eta internet ostean. Internet osteko artista da Damaris Pan Vega (Mallabia, 1983ko abuztuaren 29a), baina ez bereziki bere lanean sareak presentzia agerikorik duelako, ez bada bere lana ezagutzera emateko sarea erabiltzen duten artisten taldekoa delako. Bere garaiko artista, esan daiteke beraz.

Banakako erakusketarik ez oraindik, baina makina bat erakusketa kolektibotan izan da aspaldian, azkena Iñaki Imaz komisario lanetan ibilitako Esku Azpi Begi erakusketan, iazko abenduaren

30ean bukatua. Bizkaiko Ertibil erakusketarako hiru bider izan da aukeratua. Irakaslea da Arte Ederren Fakultatean.

Bere garaiko artista, baina aldi berean betikoa: marrazkia eta pintura erabiltzen ditu gehienbat, zer aurkituko duen jakin gabe abiatzen da bidean, sormen prozesuak bere barrenak erakusten dizkiola iruditzen zaio. Ez du metodologia jakinik, ez du behar. Ez du ordutegirik, ez du presarik, beretzako ari da lanean mundua. Begietatik sartzen zaion mundu hori eskuetatik ateratzen zaio, lehen edo berandu. Ez dabil margoa zerbaiten errepresentazio bezala, modu autonomoan baizik: materia

bera, trazua, kolorea, marrazkia, formaren indarra. Izaki eta izaera berri bat sortzen du artelan bakoitzean.

Zer aurkituko duen jakin gabe abiatzen da bidean, artea desbideratze gisa ulertzen du, eta etengabeko desbideratze horretako geltokiak dira bere lanak. Batean izaki harrigarriak, bestean ikono zikinak, batzuetan ematen du sarean hara eta hona dabiltzan mila modutako irudien sintesi basa bat egin duela bere garaiko artistak, harrapatu duela muntroa, harrapatu duela edertasuna, eta berriro sarean jarri, izaki berriak bere bidea egin dezan. ■


KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Ezberdina



Xabier Etxaniz Erle



Martin

ALAINE AGIRRE

Ilustrazioak: Maite Gurrutxaga
Elkar, 2016
32 orrialde
Haurrentzat

Aurrekoetan ere aipatu izan dugu euskal letretan haur txikientzako liburuetan eman den garapena urte gutxi batzuetan. Komentatu izan dugu emakumezkoak gero eta pisu handiagoa hartzen ari direla haurrentzako literaturan ere.

Martin hau genuke aipaturiko bi ideia horien isla argia. Album ederra, kontatzen duen ideia ongi asmatu eta egituratua duena, iazko Lazarillo saria eskuratu zuena Espainiako Estatuan aurkeztutako lanen artean, eta aurretik ibilbide handia duten bi egilek sortua.

“Martin nire lagunik onena da. Baina Martin ez da besteak bezalakoa. Edo hori diote besteek”. Hitz hauekin ekiten zaio istorio honi; hitz horiekin eta jai baten irudiarekin. Bertan ikusleak ez du jakingo nor den istorio honen narratzailea, ezta nor den Martin. Baina orriek aurrera egin ahala, narratzailearen kontakizunak bere bidea egitean, Martin ezagutzen joango gara; “berezia” dela ikusiko dugu, “ezberdina”, kalkulua oker egiten du, baina hilabete osoko menua buruz daki, ukitu gabeko besarkadak maite ditu, eta gauza errepikakorak ditu gogoko.

Irakurleak laster ikusiko du desberdintasunari eta desberdinen integrazioari buruzko lan baten aurrean gaudela. Martinen eta istorioa kontatzen digun neska narratzailearen arteko harremana ezagutzeaz gain, mutilaren ahuleziak eta abildadeak ezagutuko ditugu, baita bien artean dagoen kariñoa ere, nahiz eta Martini beste neska bat gustatzen zaion, eta ez istorioa kontatzen diguna.

Esaldi bakar batzuen bidez istorio osoa bideratzen digu Alain Agirrek. Ilustrazio irudigileen bidez informazio osagarria

eskaintzen Maite Gurrutxagak, eta horrela, testuak dioenaren bidez, eta irudiak osatzen duenarekin Martinen istorioa ezagutzen joango gara. Kariñoz, sentimendu eta norbanakoaren balioa indartuz: “Martinek gauza errepikakorak ditu gogoko. (...) Behin azaldu nion tximeletei ere gustatzen zaiela itxuraz aldatzea. Horrez geroztik, belarritakoekin marrazten ditu tximeletak, baina nik buelta eman orduko, kapela bat ipintzen die gainean”. Horixe baita Martin, kapela duen tximeleta. Besteak bezalakoa, tximeleta, baina kapeladuna. Eta ideia hori indartzeko ikusgarria da Maite Gurrutxagaren irudia, dozenaka tximeleta, denak berdinak, neska narratzaileak eginak... eta bat, Martinek jarri dion kapela buruan duela.

Albumaren amaierak sentimendu gazi-gozoak uzten dizkigu, Martin eskola berezi batera joan delako, baina era berean, gozoa Martinen jokaeragatik ere: “Orduan Martin nigana hurbildu astiro-astiro, eta besarkatu egin nau. Benetako besarkada bat izan da”. Izan ere, amaierako ideia horixe baita, desberdinak garelako, baina denok. “Eta besteek arrazoia dute: ez da, inola ere, besteak bezalakoa”. ■



Alain Agirre idazlea (Bermeo, 1990), haur literaturan ere nabarmendu da.

» TELEGRAMA

Urtarrilaren 7an hasi zen Donostian musika-zinema dokumentalari eskainitako **Dock of The Bay** jaialdia eta hilaren 14ra arte ikusteko bezainbeste entzutekoak diren filmak eskainiko dituzte **STOP Francoren bilobari gutuna** antzezlanak Euskal Herriko herri eta hirietan barrena jarraitzen du: Gernika-Lumon ikusi ahal izango da urtarrilaren 13an: Lizeo Antzokian da zita **STOP** Mungiako **Mungirock aretoak** bi urte bete ditu eta ospatzeko Eraso! eta Ero taldeen kontzertua antolatatu dute hilaren 13an: sarre-ra doan da eta kontzertua 21:00etan hasiko da **STOP**

» DISKOA

Gure barneko fauna



Iker Barandiaran

**Zoo****ZOO**

Autoekoizpena, 2016



Zoo taldearen anagrama.

Euskal Herri osoa eta bakarra irudikatu nahi dugu eta horretan dihardugu, baina ñabardurak egon badaude eta herrialde bakoitzak baditu desberdin- du eta bereizten duten ezaugarri batzuk. Horren adibide argia da Bidasoa ibaiaren bestaldetik aspaldidanik etorri zaizkigun bestelako doinuak, Frantzia aldean bor-bor hazi direnak. Zer esanik ez Asterixen lurraldean maisutasunez landutako hip-hop eta rap doinuak, Europan erreferente direnak. Baita klub ilun eta klandestinoetan garatutako elektronika irudimentsu eta dantzagarriena ere. Eta ezin ahaztu Bordele aldean Théâtre Barbey zenaren inguruan jorratutako post-hardcore eta jazzaren arteko jolas instrumental aberatsa. Ipar Euskal Herrian ur-emari horietatik galanki edaten dute, eta hala behin baino gehiagotan sorpresa itzelak eskaini izan dizkigute musika eszenak eta musika zaleok biziki eskertzen ditugunak.

Zoo talde berriak badu aipatutako eragin horietako batzue- tatik eta zinez eszenari proposamen desberdin eta musika planteamendu zein mezu gordina eskaintzetik. Gordina da Zoo, gordina eta basatia, gure barneko fauna eta ase-beharrak hein batean eskatzen dituelako: ideario euskalduna, munduaren akabera, gure arbasoen kultura, pastadun betaurrekorik gabeko (post)modernitatea,

kristautasun perfidoa eta apokalipsia hein batean batuta.

Beskoitzen sortutako taldearen es- treinako lana dugu hau, baina horren kideek Izate, Ikara, Mak, Ak, Islaia eta 430 taldeak izan dituzte ikasleku; eta aurrekoetan ez bezala, oraingoan eskola ordutik kanpo hirukote gisa askatu dira oihanera honako formatuan: baxua, ba- teria eta ahotsa.

Makakak onomatopeikoa baxu sar- korrak irekitzen du eta aspaldi Belly Button zein Sabot taldeek eta gerora Sheelac-ek lortutakoaren pareko oinarri astuna erdiesten du, gainetik repeatuz. *Lakastak* deituak gehiago du metala- ren eta jazzaren arteko jolasetik, betie- re gainetik erreztatuz. *Kabalak* iluna- goa da, raggamuffina ere badu eta Juan Pilik gogoz eta estilo biziz repeatzen du. *Harrak*-ek Primus-en pulstua dau- ka eta erdiko tempoak post-hardcore eta jazzarekin uztartzen ditu. *Axeria*-k riff berezia du, errepikakorra izan arren zeharo berezia dena, eta ahotsak onoma- topeia joko aberatsa eskaintzen du. Baretu da nonbait hiruko piztia eta *Za- kurrak* ederra erditu dute melodia go- xoagoa eta rap fina bere gain hartzen dituen, akabera jazzero-tribalarekin. *Oreina*-k bide luzea egin du oraindai- no: misterio kutsua ezin gainetik kendu eta harrotzen eta harrotzen doa distorsio- ra arte. Azkenik, epilogo gisa, *Abereen mendekua*, rock epiko ia flamenkotik abiatuta repeatutako rock gogorraren itsasoan hiltzen dena. ■

Jarrera da (ia) inportanteena



Jon Aranburu Artano

@jonaranburu

ARGAZKIA: DOS POR DOS

Musikazaleok maiz eztabaidatu izan dugu kontzertu batean zein taldek zeinekin emango lukeen ondoen, edo honek eta hark ez dutela elkarrekin *pegatzen* kartel berean... Emanaldia hasi aurretik zerbaitez aritu behar, badakizue. Badaude koherentziaren aldekoak, baita kontrastearen aldekoak ere. Beste eztabaidetako bat izaten da aretoa bera urliarentzat egokia ote den; are gehiago Hell Dorado moduko areto batez ari bagara, rock areto izaera ondo markatua baitu Gasteizko infernu txikiak.

Oraingoan geneukan hirukoteak rockaren askotariko koloreak zekartzan Gasteizko gau hotzera, beraz, nolabait ere koherentziarena eta kontrastearena betetzen zituen. Afixa (ia) perfektua, beraz.

Arrasateko Screammers & Sinners izan ziren martxan jartzen lehenengoak. Rockabilly-a punk jarreraz emana, psychobillya, egiten du laukoteak. Kontrabaxua buru zela, ordubetea, erritmo dantzagarritz, gitarra zorrotzez, saxo lizunez eta hitz gordinez berotu zuten aretoa. Gaztelania, ingeles eta euskarazko abestiak tartekatu zituzten, eta pare bat bertsio ere bai (RIPen *Ahagate* identifikatu nuen). Bi disko dituzte kalean, eta hirugarrena ere ba omen dator; bi urteko tartean ez da gutxi.

Taula gainean urteak daramatzatenak, berriz, Señor NOkoak dira. Euskal *underground*ean, halakorik balego, izen handienetakoak dira Buenavistakoak. Punk rock azkarra, gitarra soloz josia, eta jarrera sutua. Xabi Garre (ez, bere abizena ez da Señor NO) *frontman*ak jendeari behin eta berriz egin zion orro, eta ordubetea, ia arnasarik hartu gabe, euren erreperitorio zabalaren lagin dotorea eskaini zigu-

ten. Ez, berrikuntzarik ez dute ekarri azken urteotan; baina zer arraio, beharrik ba al dago beti berritzen aritzeko?

Sumision City Bluesek azken lana aurkeztea zen, baina, gaueko aitzakia nagusia. *Hay un plan trazado desde arriba, y se llama...* Sumisionen lehen lan luzea da, aurretik disko laburrak besterik ez baitituzte argitaratu. Hasieratik argi utzi ziguten zein zen beraien intentzioa Pela abeslariak “Topa, hijos de puta!” oihu egin zuenean: ospatzea eta eragitea. Disko berriko kantuak (aurrekoak baino rockeroagoak) eta zaharrak (funk kutsu nabarmenagokoak) tartekatu zituzten ordu eta erdiz. Hell Doradok talde honentzat neurritik egindako aretoa dirudi: eszenatoki perfektua da Pelak bere imintzioak egiteko, Josebak eta Antik elkarrekin “lehiak” egiteko eta

David eta Kikek denok dantzan jartzeko. Gainera, inoizko sasoirik onenean dau dela esango nuke; beraz, zer gehiago eskatu?


Bada eskatzen jarrita, jarrera; eta horretatik ere izan zuten hirurek: punk jarrera probokatzaileria agertu zuten; kantuak eman baino, jaurti egin zituzten, bata bestearen atzetik zapladaka. Ezer nabarmenezkotan, horixe. Ez da alferrik askotan esan jarrera dela (ia) inportanteena. ■

KONTZERTUA

Screammers and Sinners, Señor NO

eta Sumision City Blues.

Gasteizko Hell Doradon, urtarrilaren 7an.



Egilea: Ana Zambrano

Hitz gezidunak

SASOI AISE		PERTSONAIA- REN IZENA RADONA		DA, NIRI	 Dani Blanco		BAKOITZAK BAT SASITZA		ZAPI, EHUN SERBIAKO HERRITAR		OZPIN PERTSO- NAIAREN JAIOTERRIA	
ARRAZA EZTAINUA							INON UME, SEIN					
		501 ERROMATAR ZENBAKIZ LIBANOKO HERRITAR			AHOLKU NAFARROAKO HERRIA		BAILARA, IBARRA ORBAN TXI- KIAK					
ZILAR KOLOREKO METALA ZUREZKO ONTZI LUZE								WEBGUNE PERTSONAL MUSIKA TRESNA				
				ESKAILERA TAKETA, OHO- LESIA						ESTRONTZIOA GIZA ITXURA- KO MAKINA		
EZIN ESAN DAITEKEENA	ESNEA EMATEN DUEN ABERE ERAKUNDE ITXIA				PERTSONAIA- REN ABIZENA PASATU, IRA- GAN							
							OROIPEN ARNAS EZAK HILA					TXORRIEN KANTUA
NOREN ATZIZKIA ELIZAKO ERLIJIO-IRUDI		LERDEN, LIRAIN NAFARROAKO IKASTOLEN ELKARTEA							BI KEN BAT ZERGA EZA- GUNA			
					EKINTZAILE LETRA IZENA (ALDERAN- TZIZ)						10 ERROMATAR ZENBAKIZ SOZIALATE MUGATUA	
LANTEGI ITSASGORA						ONTZAT EMAN ROENTGEN						
									ARRAIN MOTA			

Sudokua

Bete itzazu gelaxkak 1etik 9rako zenbakiak idatziz, zutabe, lerro eta 3x3ko koadro bakoitzean errepikatu gabe.

					6			
		7			1			
9	8	3					7	
8			3	5			2	
		6				7		
	5			6	2			4
	6					8	9	5
			9			2		
		4						

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.

- 1. Abesti.
- 2. Zikin, lizun.
- 3. Desira, gogoa.
- 4. Txiki.
- 5. Usadioa.

Ebazpenak

3	9	4	2	2	8	5	1	6	7
5	7	8	6	1	2	4	3		
1	6	2	4	7	3	8	9	5	
7	5	9	8	6	2	3	1	4	
2	3	6	1	4	9	7	5	8	
8	4	1	3	5	7	9	2	6	
9	8	3	6	2	4	5	7	1	
6	2	7	5	3	1	4	8	9	
4	1	5	7	9	8	6	3	2	
5x5:									
1. Kantu. 2. Ahats.									
3. Nahia. 4. Tipl.									
5. Usata.									
M	A	R	E	A	G	O	R	A	V
M	A	R	E	A	G	O	R	A	V
M	A	R	E	A	G	O	R	A	V
M	A	R	E	A	G	O	R	A	V
M	A	R	E	A	G	O	R	A	V
M	A	R	E	A	G	O	R	A	V
M	A	R	E	A	G	O	R	A	V
M	A	R	E	A	G	O	R	A	V
M	A	R	E	A	G	O	R	A	V
M	A	R	E	A	G	O	R	A	V

Leire Reguero. EHUko medikuntza irakaslea



OIER ARANZABAL

Leire Reguero Farmazian lizentziatu zen 2007an eta 2014tik irakasle atxikia da Leioako Medikuntza Fakultateko neurozientzia sailean. Azaroan *Nature* aldizkari entzutetsuan kannabinoideek memorian duten eragina aztertzen zuen artikulua argitaratu zuen beste hainbat ikerlarirekin batera. Urteetako lanaren fruitua da argitalpena, eta kannabinoideek memorian nola eragiten duten azaltzen du, inoiz azaldu ez bezala.

“Interes komertzialek berebiziko eragina dute drogen inguruko legedian”

Oier Aranzabal
@oaranzabal

Ofizioz ikerlaria

“Ikertzen ez duen jendartea, geldirik dagoen jendartea da. Ez ikertzeak gure garapena eratuko luke. Eta hainbat gaixotasunetan hil ala bizikoa da kontua, haien sendabidea aurkitu nahi baldin badugu behintzat. Diru gehiago bideratu behar da ikerketara, ez ikertzea luzera begira garestia goa irtengo baitzaigu. Guk horretan jarraituko dugu”.

Kannabinoide hitza entzun eta *Cannabis*-a datorkio burura edonori.

Cannabis landarea antzinatik erabili izan da, nola errito magikoetarako, hala modu terapeutiko eta ludikoan. Jendeak ez zekien zergatik ordea. Landare horrek fitokannabinoideak eta beste substantzia asko sintetizatzen ditu. Ezagunenak, Delta 9 THCa eta CBDA edo kanabidiola. THCa da jendeak ezagutzen duena, psikoaktiboa delako, “kolokatzten” gaituelako. 1964an isolatu zen, eta CBDA, berriz, 90eko hamarkadan.

***Cannabis*-ak zer onura terapeutiko izan ditzake?**

Minbiziari dagokionez, adibidez, kimioterapiak eragindako okadak saihesteko edo gosea pizteko erabil daiteke eta hainbat laborategitako saioetan tumoreen aurkako funtzioak izan ditzakeela ere ikusi da. Euskarri Herrian badago esklerosi anizkoitzaren zenbait ondorio tratatzeko *cannabis*-etik eratorritako farmako bat, Sativex izenekoa. THCa eta CBDA ditu pareko kontzentrazioan. Gainera, memorian duen eragina gaituz gero balio dezake Alzheimerre eta Huntington sindromea tratatzeko ere.

Cannabis-a eta kannabinoideak estigmatizatuta daude zeharo.

Bai, *Cannabis* hitzetik eratorritako oro droga ilegalarekin erlazionatzen da eta zailagoa da komertzializatu eta horrekin lan egitea. Esperimentaziorako ez dago hainbeste arazo; guk saguekin lan egiteko, esaterako, ez dugu arazorik. Baina gero gizakiengan erabili nahi baduzu, traba eta oztopo asko sortzen dira saio klinikoak egiteko. Herrialde askotan ilegala da *cannabis*-a eta, beraz, landare horretatik ateratako substantziak ere estigmatizatuta daude. Uste dut, hala ere, ikerketa gehiago egin ahal argiago eratuko direla *cannabis*-aren onurak. Haur epilepsiaren kasua nabarmena da. Beste farmako batzuk ez badira eraginkorrak, azkenean, kannabinoideak erabili beharko dira.

Nola gaingitu estigma hori?

Heziketa oso garrantzitsua da. Alde batetik nerabezaroan, ez bakarrik kannabinoideekin, beste drogekin ere berdinekin egin behar da. Oso garrantzitsua da erabilera ludikoa eta terapeutikoa bereiztea. Kontsumo ludikoari dagokionez

"Cannabis hitzetik eratorritako oro droga ilegalekin erlazionatzen da. Ez dago hainbeste arazo saguekin-eta esperimenzioa egiteko, baina gizakiengan erabili nahi baduzu traba asko dago".

ARGAZKIA: LEIRE REGUEROK UTZIA



norberak nahi duena egin dezake, baina berebizikoa da kannabinoideek sor ditzaketan ondorioen inguruko informazioa izatea. Nerabezaroan oso arriskutsua da THCa kontsumitzea.

Zergatik?

Oraindik burmuina ez dagoelako guztiz garatuta. Nerabezaroan neurotransmisoreen arteko komunikazioa garapen fasean dago eta exokannabinoideak hartuz gero, neuromodulazio hori galtzeko arriskua handia da. Ikusi da eskizofrenia, agerraldi psikotikoak eta horrelako gaitzak sor ditzakeela. Helduen kontsumoak, berriz, ez ditu horrenbeste arrisku. Memoria galera izan liteke ohiko ondorioetako bat. Alta, inor ez da hil *cannabis*-a hartzeagatik, ez baita hain erasokorra.

Ikerlaria zaren aldetik, zer iritzi duzu gaur egungo legediaren inguruan?

Galdera zaila da. Ez daukat batere garbi. Oso jomuga interesgarriak izan ditzakete *cannabis*-ak edo *cannabis*-etik eratorritako farmakoek medikuntzan. Nik ez dut ulertzen zergatik den ilegala *cannabis*-a,

eta aldiz, tabakoa eta alkohola ez. Bitxia da, tabakoak eta alkoholak ez dutelako erabilera terapeutikorik eta jendea hil egiten delako bien kontsumoagatik. Eta *cannabis*-a, berriz, funtzio terapeutikoak izan arren ilegala da. Zalantza izpirik gabe, erabilera terapeutikorakoak legala izan beharko luke. Hori bai, kontrolarekin, tabakoak eta alkoholak ere izan beharko luketen kontrol berarekin.

CBDa ez da psikoaktiboa. Nola da posible debekatua egotea?

CBDa landareetatik ateratzen da, eta ezin da patentatu. Enpresa farmazeutikoei ez zaie interesatzen CBDarekin lan egitea. Azkenean ez baitute diru asko irabaziko. Interes komertzialek berebiziko eragina dute drogen inguruko legedian. Morfinaren kasua oso antzekoa da. *Papaver somniferum* landaretik morfina sortu zen lehenik, eta gero haren deribatu gisa heroina atera zen, beste batzuen artean. *Cannabis*-arekin gauza bera gertatzen da, medikamentuak atera daitezkeela, baina haxixa ere bai. Horregatik da garrantzitsua erabilera ludikoa eta terapeutikoa bereiztea.

Kannabinoideek memorian duten eragina aztertu duzue zuek, hain zuzen ere, *Nature* aldizkarian publikatutako artikuluan.

Bi artikulua argitaratu dira, zehazki. Lehenengoa *Nature Neuroscience* aldizkarian, 2012an. Jakina zen CB1 hartzailea neuronaren mintzean aurkitu zitekeela. Baina lehen ikerketaren bidez, jakin genuen hartzaile hori mitokondrien mintzean ere badagoela. Eta gainera funtzionala dela! CB1 mitokondrialak neuronan jarduera erregulatzen duela ikusi genuen. Aurkikuntza garrantzitsua izan zen kanpotik hartutako kannabinoideek memorian duten eragina ulertzeko. 2016ko azaroan publikatu den bigarren artikulua, aurrekoaren jarraipena da. Horretan saguekin egindako memoria probak eta haietatik ateratako ondorioak bildu ditugu. Laburki azalduta, CB1 mitokondrialik gabeko sagu transgenikoen memoriarengan kannabinoideek eraginik ez dutela frogatu dugu. Hau da, CB1 mitokondrialak direla kannabinoideek memorian duten eraginaren gakoa. ■



Euskal selekzioa futbolinean ariko da 2017an

Selekzioaren partidari San Mames erdi hutsik ikusita penaturik sentitu zine-netakoa baldin bazara, trankil, 2017an ez da irudi bera errepikatuko. Ofizialtasunaren aldeko plataformak iragarri du Gabonetan *futbolin* bat jarriko dutela Bilboko Albiako lorategietan, eta hortxe jokatu duela selekzioak. “Zelaia lepo betetzea desio dugu”, adierazi du plataformak. “Mahaiaren bueltan dozena bat pertsona biltzen badira, erronka aise gaindituko dugu. Ea eguraldiak lagun-

tzen duen eta jendea ez doan zaharrera poteatzera”. Lurralde guztietako zaleak erakarri aldera, berdez margotuko dituzte egurrezko 22 figurak: EAEkoak izango dira alde batean, eta Nafarroa eta Iparraldekoak bestean. “Ez dugu inor baztertuko”. Ekimenaren berri izatean “Gora Euskadi askatuta!” egin du oihu Andoni Ortuzarrek, 2020an Espainiako selekzioak San Mamesen jokatu duen partidarako Internetez sarrera bat erre-serbatzen zuen bitartean.

SAREAN ARRANTZATUA

Eskerrak bi hizkuntzetan dagoen, bestela ez genuke piperrik ulertuko



Baltasar Melchorrez mozorrotuta



Gipuzkoako Aldundiak Sopelako piromanoa fitxatuko du hondakinak errausteko

Donostiako epaitegi batek erabaki du 2013an erraustegia bertan behera uzteko erabakia bertan behera uztea, baina beste epai batek bertan behera utzi du 2016aren bukaeran erraustegi berria lizitatzeko Gipuzkoako Hondakinen Kontsultazioak emandako baimena. Laburbilduz: dena bertan behera dago uneotan. Dena? Ez. Gipuzkoako Ingurumen sailak prest dauka soluzio definitiboa eta Beranduegiri filtratu dio eskusiban: “Orain arte erraustegiarekin tematu gara, irtenbidea Euskal Herrian bertan edukita, eta azpiegituren pre-

miarik gabe”, esplikatu du Joxe Inazio Ascenso diputatuak. “Sopelan kontainerrak erretzeagatik atxilotu duten gizonarekin harremanetan jarri gara. Horrelako grina duen norbait lehenago agertu izan balitz, gipuzkoarrok hondakinekin dugun problema aspaldi konpondua zegoen”. Sopelako piromanoa urtarrean bertan hasiko litzateke Gipuzkoan lanean Aldundiaren arabera. Erakunde foralak eskatu du ez diezaiotela “piromano” deitu, “balorizazio energetiko berdearen alorreko ingurumen teknikari espezialista” baizik.



Izendapena ospatzeko barbakoa eskutik joan zitzaion sopeloztarrari.

Alberdi EUSKAL ARTISAUTZA

MAKILA



Opari berezietarako • pertsonalizatuak • prezio aukera desberdinak

**Makila
tradizionala**
Gaztainondo/Letoi



**Makila
tradizionala**
Mizpirondo/Letoi



**Makila
tradizionala**
Mizpirondo/Alpaka



**Makila
tradizionala**
Mizpirondo/Zilar fina



**Ohorezko
Makila**
Mizpirondo/Alpaka



**Ohorezko
Makila**
Mizpirondo/Zilar fina



ARGIA

ESKAERAK: www.argia.eus/denda/makilak | denda@argia.eus

Zirkuitu Ibilbidea, 2 - Industrialdea, 15 | 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa) | 943 371 545

4. argitaraldia

BIZI BARATZEA

garaian garaikoa garaiz.

Jakoba Errekondo

Zure baratzea sortzeko, moldatzeko eta eusteko behar duzun liburua



Eskatu zure liburua

☎ 943 371 545

www.argia.eus/denda

denda@argia.eus

23 €

19,50 €

harpideentzat

AURKEZPEN-SOLASALDIAK HERRIZ HERRI

Antolatu zure herrian

Jar zaitez gurekin harremanetan eta behar duzun informazioa eskuratuko duzu:

sustapena@argia.eus · ☎ 943 371 545

 **ARGIA**
argia.eus

**BIZI
BARATZEA**
www.bizibaratzea.eus

184 orrialde (21,5x25 cm)